argia.eus

argia

2014ko azaroaren 30a | LXXVII. urtea | 2.439 zenbakia | 3,90 euro

02439
9 771402 139093

Elikadura krisia

Karitatearen eredutik aktibismora igaro beharra

Mikel Epalza
apaiza

«Zer zentzu du mundu erdia baino gehiago bekataria dela esateak?»

Larrun

Parte-hartzea enpresan

Immigrazioa Nafarroan

Xenofobiaz ohartarazi du Rafael Paredes Etorkin elkarteko abokatuak

Utta von Gleich

Peruko eta Boliviako eskoletan kitxua lehenetsi nahian

ARGIA Durangon

Standera etortzeko arrazoiak

EUSKARAZ ERE,
NATURALTASUNEZ

Harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzea funtsezkoa da zerbitzu ona eman ahal izateko. Laboral Kutxan, zurekin euskaraz aritzea ez da aparteko aukera bat, gure nortasunaren eta gure izaeraren berezko ondorioa baizik. Izan ere, geurea zaintzea gustatzen zaigu, geure ezaugarri bereizgarriei eustea eta iraunarazten laguntzea, etorkizuna bermatzeko. Izan ere bada euskara bizitzeko beste modu bat... naturaltasunez.

Bada beste modu bat.

LABORAL kutxa

Azaleko argazkia: JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Azala: GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: GaztelukoPlaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

euskaraz bai

NON ZER

2014ko azaroaren 30a, 2.439. zenbakia

ASTEKO GAIA

GOSEA Elikaduraren kudeaketa, eraldaketa sozialerako tresna. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 4

PERTSONAIA

MIKEL EPALZA: «Kultura hitza ematetik dator». SUSTRAI COLINA / 10

GAIAK

PREKARIETATEAREN AURPEGIAK EEE selektiboak izan ziren TSkoak, langile batzuk zigortzeko. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 15

VIRGINIA BASURTO: «Mugikorretarako material ustiapenak ez luke gerra finantzatu behar». UNAI BREA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

KATALUNIA BUELTAKA GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 20

LEGEAN KA(N)TIATUTA IÑAKI ODRIOZOLA / 22

ALBO-KALTE TXIKI BAT XABIER MENDIGUREN ELIZEGI / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Jostuna. JOANES ETXEBARRIA / 22

ERDIKO KAIERA

'ARGIA' DURANGOKO AZOKAN Plan bat proposatu nahi dizut. ARGIA / 24

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE / 28

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 29

IHESI BERRIATUA (BIZKAIA) Iheserako plan perfektua. AITOR KALTZAKORTA / 30

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Dialektikaren poderioa. ÁLVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 33

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

RAFAEL PAREDES: «Etorkina egun lehiakide da, eta talka dator, xenofobiaren arriskua». KOLDO AZKUNE ETXABARRI / 37

UTTA VON GLEICH Nola konbentzitu gurasoak eskolako hizkuntzak kitxua behar duela izan. MIEL A. ELUSTONDO / 40

AMIANTOAREN AUZIA ITALIAN «Lotsagarria da!». URKO APAOLAZA AVILA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 46

NET HURBIL 2393.etik ikusita, nola ez genuen eragotzi klimaren zoratzea. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

GOSEA

Elikaduraren kudeaketa, eraldaketa sozialerako tresna

Zenbat dira Euskal Herrian gose diren biztanleak? Nola kudeatu beharko genuke elikaduraren krisia? Zein ardura dute administrazio publikoak, ezkerreko mugimenduek, herritarrek honetan guztian? Elikadura burujabetza izan al daiteke soluzioa? Galdera horiei heldu zieten GITE-IPES elkarteak urrian Bilbon antolaturiko jardunaldietan. Hona ekitaldiak emandakoa.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

JATEKO ESKUBIDEA nazioarteko eskubide positiboa da, Nazio Batuen Erakundeak onartua eta tartean Espainiako eta Frantziako gobernuek sinatua. Eskubide transbertsala da: ekoizpenaz, banaketaz, enplegua eta jakiak lortzeko aukeraz… mintzo da, eta zera dio: "Elikagaien banaketa orekatua bermatuko duten neurriak hartzeko konpromisoa dute Estatu sinatzaileek, baita zuzenean esku hartzekoa ere, elikadura egokia lortzeko gai ez diren herritarrak eta taldeak daudenean". Haatik, arlo honetan administrazioak funtzio utzikeria egiten duela eta elikadura krisiaren erantzukizuna zuzenean gobernuz kanpoko erakundeen eta herritarren solidaritatearen esku uzten duela iritzi dio Ramón González Parada soziologoak: "Horregatik harritzen nau sindikatuek, elikagai bankuek, Caritasek, alderdi politikoek… mahai gainean elikaduraren gaia jarri ez izanak, etxebizitza, hezkuntza edo osasuna bermatzeko eskubidearen alde egiten den borrokaren pare; ezkerrak bere estrategian barneratu beharko luke elikagaien gestioa".

Jakiak hartzetik kooperatibetan auto-antolatzera igaro dira premia dutenak Grezian, karitatearen eskematik elkartasunera

Izan ere, datozen urteetan premia dutenen artean elikagaiak banatzen jarraitu beharko dela aurreikusiz, banaketa horrek eraldaketa sozialerako tresna izan behar duela aldarrikatu du Gonzálezek. Gaur egun, beharra dutenei elikagaiak helarazteko dagoen moduak enpresa handiei egiten die mesede, horiekin hitzematen baititu administrazioak erosi beharreko jakiak. Eta kanpaina herritarrak ere (Kilo Operazioa eta halakoak) merkataritza gune handiekin adostu ohi dituzte elikagai bankuek. "Kontua da –dio soziologoak– arazoa sortu duten enpresa handiak eta agroindustria bera direla konponbidean aktiboki parte hartzen dutenak, euren interesen araberako irtenbideak bilatuz, Estatua ordezkatuz eta politikoki, ideologikoki eta ekonomikoki posizio indartsua berenganatuz. Horren aurrean, hartzaileek rol pasiboa utzi eta duten arazoa konpontzeko aktore izan behar dute, antolatu egin behar dira; denak, hartzaile eta banatzaile, arazo sozial bati aurre egiteko kolaboratzaile bilakatu behar dira".

Caritas eta ezkerreko mugimenduak

Caritasen ilara egitea ez bestelako formulak bilatu behar direla azpimarratu du soziologoak, baina horretarako Caritasekin –elikagaien banatzaile nagusia izanik– hitz egin beharra dagoela dio: "Madrilen, ezkerreko taldeak hasi dira banaketaz arduratzen, eta Caritasen gauza berdina egiten dute, baina okerrago, ez daudelako hain ongi antolatuta. Zergatik lehiatu? Zergatik ez da saiatzen ezkerra Caritasekin hitz egiten? Egia da Elizak monopolizatzen duela erakundea, baina milioi bat herritar baldin badaude Caritasen jakiak eskatzen, goseak dagoen milioi hori baztertu egingo dugu Caritasen dagoelako? Jende horrengana gerturatu behar dugu. Egun batetik bestera ez dugu aldaketa lortuko, baina beste era batera lan egiten hasiz gero, eredu berria laster zabalduko da, denentzat hobea delako herritarrek beren pobrezia antolatzea, inguruan erostea, bertako merkataritzak parte hartzea, boluntarioek aldaketa eta presio soziala eragitea…".

Grezian Syriza koalizio ezkertiarrak bultzaturiko ekimena jarri du adibide: jakiak hartzetik kooperatibetan auto-antolatzera igaro dira herritarrak, karitatearen eskematik elkartasunera, "jendea biktimizatu beharrean, egoera horretatik ateratzeko baliabideak ematea baita bidea". Administrazioaren ardurari dagokionez, beste adibide bat jarri du soziologoak, Espainiako Los Molinos herrikoa: beharra dutenentzat udalak diruz laguntzen

M.G.I.

Argazki Press/J. Manterola

Dani Blanco

“Etxebizitza, hezkuntza edo osasuna bermatzeko borrokaren parekoa behar du elikadura eskubideak. Ezkerrak bere estrategian barneratu behar luke”

José Ramón González, **soziologoa**

“Europako herrialde ugaritan catering enpresak derrigortuta daude produktuen %50 inguruko ekozleei erostera. Zergatik hemen ez?”

Unai Aranguren, **Via Campesina**

dituen elikagai-txekeak hornitzaile sare lokalarekin negoziatu ditu; hala, dendariek merkeago saltzen dituzte oinarrizko produktuak txekearen truke, eta txekea udalak ordaintzen dio ondoren dendariari. Bertako ekoizle txikiak lagunduko dituen banaketa sistema hobesten da horrela, gertuko erosketak eta inguruko enplegua sustatuz. Hain juxtu, David Lopategi gizarte hezitzaile eta Bilboko zinegotziaren hitzetan, elikagaiak erosteko administrazioak inbertitzen duen dirua aintzat hartuta (catering-ak, diru-laguntza zuzenak, elikagai-txekeak…) eraldatzeko gaitasun handia du eskuartean botere publikoak: “Milioika euroz ari gara eta horiek bertako ekoizleetan, merkatari txikietan, kooperatibetan bukatzen badute, ondorioa izugarria da inguruko ekonomian. Adibidez, Bilboko Udalak diruz laguntzen dituen elikagai-txekeak BM, Carrefour eta antzerakoetan baino ezin badira erabili, zein ari da jasotzen administrazioak egin duen inbertsio zuzena? Zer elikadura mota ari da sustatzen eta zein ekoizle motaren mesedetan?”.

Egungo eragile nagusietakoa direnek ere, elikagai bankuek, beharrezkotzat jotzen dute aldaketa. Luis Crovetto Bizkaiko Elikagai Bankuko presidenteordearen esanetan, identitate arazo bat daukate, botatzear diren jakiak galdu ez daitezen jendartean banatzeko sortu baitziren elikagai bankuak, baina krisia medio elikagaien banaketan maiorista bihurtu dira. “Jaio ginen espiritutik aldendu gara; 2014an hilero 1.000 pertsona lagundu ditugu eta ahal duguna egiten dugu. Administrazioarekin harreman etengabea izan behar dugu, elkarri laguntzeko, eta udal ugarik hala egiten du, baina Bilbokoak adibidez ez: dirua jartzen du, baina ez dugu gizarte langileen kolaborazioriik. Administrazioak, hortaz, lagundu egin behar du, eta funtsean krisitik atera behar gaitu, gure ustez elikagai bankuok ez genukeelako existitu behar, beharrezko ez izatea gustatuko litzaiguke”.

Elikadura burujabetza eta arduren banaketa

Kontraesana ikusten du Unai Aranguren Via Campesinako kideak: inoiz baino elikagai gehiago ekoizten dira munduan, baina gosea jasaten jarraitzen du jendeak. Zergatik? “Gure sistema ekonomikoan dena delako negozioa, baita elikadura ere, eta negozioa ez da jakiak ekoitzi eta herritarrak elikatzea, jaki horiek alde batetik bestera mugitzea baizik. Duela gutxi Errusiako blokeoaren aferak erakutsi du Espainiako Estatuko enpresa asko Errusiak fruta erostearen menpe daudela. Bertan ekoizten diren barazkiak ez dira bertan jaten, Errusian baizik, eta bertan jaten dena aldiz, Marokotik dator; eromena da. Hirietan, elikagaiek batez beste 5.000 kilometro egiten dituzte guk ahoratu aurretik. Eta gainera, ekoizle, garraiolari, banatzaile eta kontsumitzaileon artean, elikagaien herena zakarretara botatzen dugu”. 20-30 korporazio erraldoi dira munduko elikagaien %80 kontrolatzen dutenak eta botere publikoak ereduari eusten diola salatu du Arangurenek: Europar Batasuna eta AEB ezkutuan adosten ari diren merkataritza hitzarmen transatlantikoak adibidez –TTIP delakoak–, kontrolak gutxitu eta “AEBek bere elikagai hormonatuak Europara errazago ekartzea ahalbidetuko du”.

Politika horren aurrean, elikadura burujabetza aldarrikatu dute hizlariek. “Elikagaiak kanpotik datoz, horrela izatea nahi da gainera, hemen transformatu egiten dira, ikurrina eta txapela jarri eta bertakoak bailiran saltzen dira –kritikatu du nekazariak–. Hori norbaiten ardura da, administrazioa eta hainbat nekazari elkarte tartean. Nik galdetuko nieke administrazioari eta herritarrei ea zer ari diren egiten bertako elikagaiak, osasungarriak eta garaikoak kontsumitzeko. Bilbo da EAEn elikadura menpekotasun handiena duen hiria, baina Udalak ez du inongo mekanismorik jartzen nekazal lurrak babesteko, lur horiek herritarren eskura jartzeko, formakuntza sustatzeko edo inguruko produktuak herritarrengana iristea errazteko; alderantziz, behin eta berriz trabak jartzen

“Elikadura burujabetzak herri-estrategia eskatzen du. Baserritarren esnea zuzenean erosteko makina jarri eta bi hilabete iraun zituen”

Xabier Aierdi, **Enplegu eta Gizarte Politika Saila**

“Jakin behar dugu zer jaten dugun, zer jan nahi dugun, zer den osasuntsua eta ekologikoa... Ongi jatea ongi formatzetik dator”

Luis Crovetto, **Bizkaiko Elikagai Bankua**

ditu azoka, ekitaldi edo jangelaren bat antolatu nahi dugunean. Beldurra ematen dio ekoizpen txiki horren gainean (hain juxtu bertakoa, garaikoa eta kalitate handiena duena) kontrolik ez izateak”. Adibidea jarri du segidan: Zeberion ekoizturikoa ez da Bilbon kontsumitzen, sistema komertzialetik at geratzen delako. Txile, Brasil, AEB, Argentinako produktuak iristen dira Bilbora, baina Zeberiokoak ez. Administrazioa beste alde batera begira dagoela-eta, Arangurenek dio elikagaien banaketarako zubi berriak sortu behar dituztela herritarrek, balore jakinen inguruan: kontsumo taldeen bidez, merkatari txikiekin hitz eginez, kooperatiben bitartez, azoketan…

Xabier Aierdi Jaurlaritzako Gizarte Politikako aholkulariak zaila ikusten du elikadura burujabetza artikulatzea, traba administratiboetatik harago herritarren borondatea garrantzitsua baita: “Gure bizimoduak ere bagaramatza bertako ekoizle txikiak laguntzen ez dituen kontsumo eredura; horregatik, elikadura burujabetzaz mintzo garenean herri-estrategia bat behar dela uste dut. Donostiako Kontxan baserritarren esnea zuzenean erosteko makina jarri zuten eta bi hilabete iraun zituen. Kontsumo ohiturek zeresana dute, baita bizimodu aldaketak ere: dagoeneko ez zaio hainbeste denbora eskaintzen janaria prestatzeari, horrek jakien plastifikazioa ekarri du, prezio merkeak bilatzen ditugu… Geure ardurari ere erreparatu behar diogu, nola aldatu pentsatzen hasteko”.

Gizartea oro har oso anestesiatuta dagoela onartu du Via Campesinako kideak, baina atzean ez badago sektore jakin baten aldeko sustapen politika bat –“eta bistakoa da ez dagoela”–, sektore hori hil egingo dela nabarmendu du. Esaterako, eskoletako jangela publikoetan haurrek etxean baino okerrago jaten dutela dio, araudiak ez duelako bultzatzen eskoletako catering enpresek hemengo produktuak erostea. Hala, Larrabetzuko eskolan, gurasoek erabaki zuten jangela sistema publikotik ateratzea. Sistema pribatuarekin 4 euro ordaintzen dituzte eta inguruko baserri eta dendariei erosten diete. Sistema publikoan, guraso bakoitzak 4 euro ordainduko lituzke eta administrazioak beste 7, “eta 11 euroren truke ez lukete jakingo oso ongi zeini zer erosten dioten”. Eskola publikoetan catering enpresei erosi behar zaie janaria, baina Europako herrialde ugaritan catering enpresak derrigortuta daude produktuen %50 inguruko ekozleei erostera, azaldu du Arangurenek. “Zergatik ez dute hori egiten hemengo catering enpresek? Ez gaude euren kontra, enpresa horiek herriko ekonomiaren aldeko politikak izan ditzatela nahi dugu”.

Gizarte prestazioak %73rentzat

Pobrezia egoeran daudenen %72,9rengana iristen da Eusko Jaurlaritzak banatzen duen Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE). “Ongi dago, baina gainerako %27,1engana iritsi behar dugu –dio Xabier Aierdik–. Kezkatzekoa zera da, errenta hori pobrezia egoeran daudenen diru-sarreretatik %39 zela 2008an, eta orain aldiz, %50. Alegia, familia horrek zituen diru-sarrera guztien herena izatetik erdia izatera igaro da errenta, jende hori gero eta ahulago eta menpekoago bilakatuz. Joera mantentzen bada, batzuk gizarte laguntzetatik bizitzera eraman dezake egoerak”.

“Erabaki politikoek egiten dute ohitura”

Afera konplexua dela errepikatu du Aierdik, elikatzeko ohitura asko gizartearekin batera aldatu direlako. Gauzak birplanteatzen hasi gara, baina orain arteko garai oparoetan zein ohitura, zein bizi proiektu eta bizimodu eraman ditugu? Horiek aldatzeko prest al gaude?, galdetu du soziologo eta aholkulariak. Ipar Euskal Herrian osasun-erregistroa egin beharrik gabe etxeko produktuak saldu ahal izatea ez da ohitura, politika publikoak dira, nekazariak merkatura iritsi ahal izateko tresna, erantzun dio Arangurenek. Europan baldintzak malguagoak direla gaineratu du, artisau ekoizpena eta ekoizpen industriala dutelako, “baina guk ekoizpen industriala bakarrik daukagu. Hori ez dira ohiturak, hori erabaki politikoak dira, batzuen mesederako eta beste batzuen kalterako. Erabaki horiek egiten dute ohitura”. Bilboko Erriberako azoka Europako azoka estali handiena da, “potentzial handia du, baina bere gestioan ez dira nekazariak aintzat hartzen eta turistentzat izatea nahi dutenez, turismo arloko eragileak eta sukaldari ospetsuak dituzte kontuan. Ez da azokaren benetako funtzioa betetzen, herritarrak elikagaiez hornitzea. Baldintza oso txarretan ari direla lanean adierazi digu azokan postua duen hainbatek”.

Etorkinak eta ama bakarrak, txiroenak

2.000 MILIOI LAGUNI eragiten die malnutrizioak munduan eta 805 milioi inguruk gosea pasatzen du. Eusko Jaurlaritzak pobreziaz aurten egindako inkestaren arabera, EAEko biztanleen %6 inguru (130.000 bat lagun) pobrezian bizi da uneotan eta 250.000 herritarrek ez dute ongizaterik. Etxeen %13tan oinarrizko gastuak murriztu behar izan dituzte, %3k dio uneren batean elikadura arazo oso larriak izan dituela eta %1,2k gose pertzepzio erreala du (25.000 herritar). 2000. urteko datuetara gerturatzen gaitu azken inkesta honek, 2008an pobrezia %4,2ra jaitsi ostean berriz ere gorako joera hartu baitu: "Aurrera begira ere, adituek diote krisi industriala bortitza izango dela eta bigarren lan erreformak gogor joko dituela orain arte eraginik jasan ez duten zonaldeak, Arabako Lautada eta Gipuzkoako txoko ugari tartean", azpimarratu du Xabier Aierdik. Nafarroan, Caritasek aurreratu berri duen txostenaren arabera, 95.000 lagun (biztanleen %14,8) pobrezia arriskuan bizi dira eta 20.000 herritar (%3,1) pobrezia larrian.

Datuek argi uzten dute batez ere behe mailako klaseak ari direla krisiaren ondorioak pairatzen: etorkinak eta ama bakarrak dira zigortuenak, eta bi profil berri ari dira hazten, 45 bat urteko gizonezkoa diru-ekarle nagusi duen familia batetik, eta lan merkatuan sartzeko eta gurasoen etxea uzteko zailtasun gero eta handiagoak dituzten 20-34 urte arteko gazteak bestetik.

Txokolatezko palmerak eta produktu bio, natural, organikoak

Elikadura burujabetzan aurrera egin nahi bada, jaten erakustea ezinbestekoa dela ohartarazi du Luis Crovetto elikagai bankuko kideak. Ikastetxeetan gosariak ematen hasi zirenean, inguruko gozo-dendak kexu agertu zirela kontatu du, txokolatezko palmerak saltzeari utzi ziotelako. Haur askori palmera erosten zieten gurasoek gosaltzeko. "Jateko kultura falta da eta jakin behar dugu zer jaten dugun, zer jan nahi dugun, zer den jaki osasuntsua eta ekologikoa… Ezagutzen ez badugu, ez dugu maitatuko, ezagutzen ez dena ezin delako maitatu. Ongi jatea ongi formatzetik dator".

Autokritika ere egin du Aranguren nekazariak, kalitatezko markekin kontsumitzaileek duten nahasmena hizpide. "Erostera goazenean ez dakigu zer ari garen erosten: ekologikoa, agroekologikoa, biologikoa, naturala, organikoa, baserrikoa, bertakoa… Marka askoren esanahia lapurtu digute eta gainera ez dakit herritarrei laguntzen edo kontrakoa egiten ari garen; baserritarrak ondo egin nahi du eta bere produktua bereizi nahi du, baina kontsumitzaileari marka eta etiketa anabasa iristen zaio. Etiketatzea hobeto landu, sinplifikatu eta bide berean goazenon arteko akordioa lortu beharko dugu, merkatuan lekua egiteko borroka baita. Produktu, marka eta izendapen bakoitzaren atzean proiektu eraldatzaile bat dagoela jakin behar du erosleak".

Udalak diruz lagundutako elikagai-txekeak herriko denda txikietan erabiltzea da administrazioak bultza dezakeen ekimenetako bat

David Lopategik ikuspegi orokorragoa aldarrikatu du, elikadura burujabetza ez dadin izan lehenengo sektoreari baino eragiten ez dion gaia: "Elikadura burujabetzaz ari garenean sektore eta eremu guztiak ukitzen dituen paradigma eraldatzaileaz ari gara: politika soziala, fiskalitatea, lurraldearen antolamendua, hezkuntza… Administrazioak asko egin dezake, keinu txikien bitartez". Aierdik jarri du azken puntua: "Bai, ongi dago sektorea bultzatzea, baina sektore hori eta ohitura horiek mantentzeko zenbat jende dago prest beste aldean?". ■

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

MIKEL EPALZA

«Kultura hitza ematetik dator»

Amaren, alabaren eta espiritu santuaren izenean... Amen.

| SUSTRAI COLINA |
Argazkiak: Dani Blanco

Zu sortzerako gerra asko pasata zeuden zuenean.

Nire gurasoen bi familiak 36ko Gerrako errefuxiatuak dira. Nire lau aitatxi-amatxiak Haltsuko hilerrian ehortziak daude. Odol bizkaitar eta nafarra dut aitaren aldetik, madrildar eta bizkaitarra amarenetik. Aita gudarien komandante izanik, preso egona eta heriotzara kondenatua zen, gerlaren lokatzetan okotzeraino sartua. Horregatik sortu naiz Haltsun, Hegoaldeari lotua odolez eta izatez, "zazpiak bat" lehen hatsetik sentituz. Etxean, gurasoez gain, iheslariak, Lekeitioko lagunak, arrantzaleak... Denetik ikusi dut beti. Niretzat odolaz harago doan zerbait izan da beti familia. Pentsa, gure etxeko tximinia gainean egon da luzaz behiala kaxarranka dantzatzeko erabiltzen zen Lekeitioko kofradiako bandera gorria. Orain gutxi itzuli diogu herriari. Susmoa dut, alta, istorio horiek etxeetan atxiki eta herriak ahanzten dituela.

Bigarren Mundu Gerraren biharamunean sortu zinen zu, etxeek eta herriek ahantzi ezin zuten garaian.

Ttikitatik entzun dut alemanak jin zirela, Nieves haurride nagusiari tximinia gaineko bandera gorria hartzea debekatzen zitzaiola, baina ez dut ez gerla girorik, ez eskasiarik pasa. Ez zen ondasun handirik, baina laborantzari loturiko herrikoitasun aberatsa genuen. Behiak, oiloak, mahasti ttipi bat... aski zen guretzako. Gogoan dudana da lekeitiarrez mintzo ginela etxean eta haltsueraz karrikan, baina zorionekoak ginela, Arrieta apezak iheslariak onartzen eta herrian integratzen bazekielako. Guk ez dugu pairatu iheslari batzuek nozitu duten baztertzerik. Errefuxiatuak ginen, ez errefusatuak. Biziki ongi txertatu ginen Haltsun, bai euskararen aldetik, bai laborantza mailan, bai Elizaren bideetan, eta nola ez, euskal nortasunari dagokionez. Ez dut inoiz ahantziko bi danbor eta lau tronpetako klika etxez etxe ibiltzen zela festetan bandera frantsesa aurretik zuela. Gure etxera heldu aitzin, alta, bandera frantsesa bide bazterrean laga eta lehengusuak utzitako ikurrinarekin sartzen ziren. Jende horrek iheslariei esker izan du herri honen berri. Horregatik diot ez dela gauza bera iheslari izatea Euskal Herrian edo Cherbourg-en. Egia da oraindik ez dela dena irabazia, hemengo jendea Hegoaldeko aferak aipatzean Espainiaz mintzo dela, baina izigarriko elkartasuna eta laguntza izan ditugu.

Nola baloratzen duzu iheslariek bake bidean eginiko ekarpena?

Garai bateko herrikoitasun eta herri izaera aldatu da. Aniztasun batean gara, iheslariak bakearen eragile bihurturik, eta eman dituzten azken urratsak txalogarriak ez ezik miresgarriak iruditzen zaizkit. Ez da samurra iheslariak biluztu diren bezala biluztea. Bizitza osoa pasa duzularik herriak ETAren ekintzetatik fruituak jasoko zituela sinetsita, ez da makala bat-batean borroka armatua bazter utzi eta bakezko armak hartzea, gizarteari burujabetza utziz. Zapalduak izan gara, pertsona eta herri gisa, zapalkuntza horren aitzinean guk ere nahi izan dugu gogorkeria era-

NORTASUN AGIRIA

Mikel Epalza. 1946ko otsailaren 14an sortua, Haltsun. 1973an apeztu eta hamahiru urtez egon zen Miarritzeko San Martin parrokian. 1985ean, Itsas misioaren arduradun izendatu zuen apezpikuak, eta geroztik arrantzaleak lagundu ditu itsasoan zein lehorrean. Liburu anitzen egile, elkarte andana baten sortzaile eta partaide, Zokoako (Ziburuko auzoa) apeza da egun.

kutsi armen bidez, baina zapalduak izaten segi arren gai izan gara logika politiko kultural hori hausteko. Horrek bide eta alternatiba berriak zabaltzen ditu. Noiz izan dugu holako aukera bat? Hori oso baikorra da denentzat, jendartearentzat eta iheslarientzat. Orain iheslari izatea ez da geroaren zepoan preso egotea, ez da geroa gainean duzun hilobi losa bat garraiatzea bezala. Egoera nekeza izan arren, esperantza izpiak berpiztu dira.

Euskal kausaren alde sutsuki agertzeak arazorik sortu dizu Elizaren baitan?

Anitzetan erran didate egin nezakeela apezbide ederragoa, Euskal Herriko erroek ez zidatela Erromara hegan egiten uzten. Ez naiz sekula apez izan nire karrera eklesiastikoa aberasteko, herritarrekin, giristino zein ez giristinoekin, ebanjelioa bizitzeko baizik. Hala, beti agertu naiz naizen bezalakoa, ez dut sekula nire herria sakelan gorde. Ezin dut ulertu herritik aparteko apez-bide bat. Zauden tokian uros izatea bezalako aberastasunik ez dago niretzat. Daukazunarekin pozik bizitzea da gakoa, ez eskas duzuna mirestea. 30 urte daramatzat Zokoako txoko honetan, eta izigarriko xantzatzat daukat euskaldun, giristino eta apez izatea. Ez nuke bat kendu nahi bestearen gehitzeko.

Euskal Herrian Elizak dituen agintariak ikusita, segur ez zenukeela bat kendu nahi bestea gehitzeko?

Ez da kasualitatea. Benedikto XVI.ak ez zuen barkuaren lema bereganatu, eta bere baitatik lan egin beharrean, Opus Dei eta giristino eskuindar atzerakoien esku utzi zuen agintea.

Euskal Herriko Eliza, egitura bezala, salbatu behar zela deliberatu zuen Erromak, eta horretarako Elizaren identitatea zorrotz markatzea erabaki. Herriaren zerbitzari, bakearen eragile, eta hizkuntza eta kulturaren gordailu zen euskal Elizak bokaziorik sortu ez izana eta elizak hustu izana leporatu ziguten. Ez ziren ohartu hemen garrantzitsua ez dela ontzia, itsasoa baizik. Hala, orain ere erresistentzia tokatu zaigu. Horregatik diot Eliza gu garela, ez Erroma. Eskerrak aita santu berriak argia ekarri digun. Euskaldun eta giristino izan gaitezkeela dio, karrikan jendeekin ibili gaitezkeela, dibortziatu, homosexual eta dena delakoekin bat egin dezakegula... Azkenean, haize fresko pixka bat, esperantza seinale bat.

Zergatik da erlijioa Frantzian homosexualen ezkontzaren aurkakoek darabilten lehen argudioa?

Tamalgarria zait. Gure apezpikua homosexualen ezkontzaren aurka mintzo entzuten dudanero pena eta mina eragiten dizkit. Homosexual andana ezagutzen dut, orotarikoak, aspalditik bataiatzen ditut heien haurrak, eta edonori emango niokeen tratua ematen diet. Nor naiz ni heien bizitza sexuala egokia den ala ez epaitzeko? Zer den debekatua eta zer bekatua inposatu behar diet? Hori irrigarria da. Lehengo logikan, ezkondu aitzin xirri batzuk egiten dituen bikotea bekataria da. Zer zentzu du, alta, mundu erdia baino gehiago bekataria dela esateak? Elkar maite duen jendea bekataria bada itzali kandela eta zoaz beste planeta batera bizitzera! Bukatu da egia absolutuen Eliza zapaltzailea. Badira oraindik beldurraren arma darabilten karkak, baina ez dira ohartzen arma hori erabiliz heien burua hiltzen ari direla. Hitzak libre behar du, ez gara frankismotik atera beste diktadura batean sartzeko. Hierarkiarekiko komunio berria ez litzateke obedientzia eta menpekotasun hutsetik sortu behar. Helduak gara, eta Eliza heldu bat nahi badugu hitz askeko iritzi trukaketak bultzatu behar ditugu. Kasu honetan, arraina ez baita buztanetik usteltzen, burutik baizik.

Kezkatzen zaitu elizak husten ikusteak?

Deblauki erranez, hori ez da intuizio bat, datu soziologiko bat baizik. Kezkatzen nauena botila erdi betea egonik erdi hutsa ikustea da. Batzuen betiereko nostalgia: lehen zegoena eta orain ez dagoena. Alabaina, Elizak lehengo pisurik ez izateak ez du baliorik ez duela erran nahi. Erortzean altxatzeko indarra ematen dizun zure baitako duintasun sakratuak, eskubideak defendatzeko, jendarte hobea bultzatzeko edo bakegintzan partaide izateko lantzen dituzun baloreak ederrak dira. Politikak ezin du dena irentsi. Pertsonek beharrezkoa dugu gertatzen zaiguna espiritualki baloratzea. Nola bizi espiritualki egungo Euskal Herria? Hori da mahai gainean dugun galdera. Eliza molde batek porrot egin baitu, baina beste bat sortzen ari da: apalagoa, umilagoa, baina baita benetakoagoa ere.

Lehen zegoena eta orain ez dagoena. Arrantzaleen omonierra izaki, arrantzaz hasiko zinela uste nuen.

Lehengo euskal jendartea oso lotua egon da laborantzari eta arrantzari. Ofizioak baino gehiago, ikur kulturalak ziren. Arrantzale eta ontzi kopuruak anitz jaitsi dira, baina izenak ez du dena egiten. Herri askotako portuak kirol-portu bihurtu eta arrantzarako baino turismorako amu gehiago izan arren, arrantzale kulturakoak dira herri horien portaera, izaera, balore sorta edo ahoz ahoko legendak. Zer geldituko litzateke gure portuetan arrantzaleak eta arrantzale kultura kenduko bagenitu? Arrantza eta arrantzale ofizioa bakandu arren, zibilizazio bat gelditzen da, itsas ondarea zaindu eta garatzeko ardura. Jendeak ofizioa laga nahi baitu, ez nortasuna.

1985etik zabiltza lan horietan.

Hastapenetik izan dut jendeari hitza emateko kezka. Kultura hitza ematetik dator. Lurra

AZKEN HITZA

Charles Saenz polizia buruaren hileta

"Uniformearen gibelean gizon bat zegoela azpimarratu, borroka armatua bukatua dela eta bakegintzan gaudela oroitarazi eta euskal gatazkan alde batean zein bestean hildako guztientzat otoitz egitea eskatu nuen. Ikusten dituzularik jendarmeak heien domina eta gradu guztiekin gudarien alde otoitzean, eta abertzale batzuk hildako polizien alde errezuan... Hori ezinezkoa zen orain bost urte. Orain posible da. Zergatik ez du Elizak hori bultzatu behar?".

goldatu eta hazia ereitea da kultura, buruak zabaldu eta hitza libratzea. Jendeak ez daki zer aberastasun baden arrantzaleen munduan, zer elkartasun sare. Jendeak ontziak ikusten ditu, lehen egurrezkoak orain txapazkoak, baina gutxik egiten du bertan itsas gizon eta emazteak irudikatzeko esfortzua: heien bizimodua, bizibidea, itsasoarekiko harremana, heien kezkak, penak, pozak... Arrantzaleek beraiek ez dute arlo hori sobera landu, eta eskasia jendartera zabaldu da. Armadoreei gure kezkaren berri eman genienean "hemengo gazteek ez dutela itsasora joan nahi? Kanpotik ekarriko dugu jendea!" gaztigatu ziguten. Oso garrantzitsua da ekonomia ongi pisatzea barku berriak egin ahal izateko, merkatu berriak sortzeko, arrantza eremu berriak lortzeko, baina non daude baloreak? Sosa da helburu bakarra? Non gelditzen da kultura? Mundu guztia dago prest barku berri baterako finantziazioa xerkatzeko, baina jende gutxi humanizazio bideak urratzeko. Jaurlaritzak ere indar ekonomiko bat bezala salbatu nahi du arrantza, ez indar kultural eta herrikoi baten gisan.

Zuk, alta, itsasoaren salbazioa arrantzale ofizioaren salbaziotik pasako dela diozu.

Jakina, itsasoa baratzea bada arrantzaleak dira baratzezainak. Bukatu da itsasoaren geroaz kezkatzen ez ziren piraten aroa. Arrantzalea da egunero itsasora ateratzen dena, itsasoa zaintzen duena. Ni naiz itsasoan astoa bezala ibili denetako bat. Arrantzale eta sukaldari aritu naiz ontzietan, eta aitortzen dut, lehorrean arraina baizik ez genuela deskargatzen. Kanpainarako kargatutako lata, botila eta zaborrak itsas zolara botatzen genituen. Gazteek konbertitu naute, gazteek ulertarazi didate txerri bat nintzela, itsasoa beti urdin egoteak ez zuela zabortegi erraldoi baten gisan erabiltzea justifikatzen. Gazte horiei esker, egungo arrantzak eta itsasoak beste begi batzuekin begiratzen die geroari.

Alta, baratzezainak agintzen du baratzean?

Arrantzalea ez da gehiago jaun eta jabe itsasoan, bere iritzia ez da iritzi nagusia. Egun, ez ditu kofradiak hartzen arrantzari dagozkion erabaki behinenak, arrantzalea zepoan harrapatua da, eta zepo horretatik ateratzeko nortasun berri bat erakutsi behar du. Arrantzaleak daki zer den itsasoa eta itsasoak zer den arrantzalea, baina itsasoa isilik dago, eta itsasoaren ordez mintzo direnak bulegoetan daudenak dira, inoiz portua zapaldu ez dutenak. Hori hala, arrantzaleak bere urrezko lekua berreskuratu behar du, ez bere iritzia inposatuz, itsasoko ezinbesteko partaidea dela erakutsiz eta bere jakintza eta kultura azpimarratuz baizik. Ez da samurra, ordea. Lehen aldiz gure historian, arrain hazkuntza gailendu zaio arrantzari. Lehen itsasotik zetorrena akuakulturatik dator orain. Horrek merkatua itotzea dakar, eta arrantzaleari jarrera are arduratsuagoa eskatzen dio. Itsasora irten eta ahal bezain arrain fresko eta ona ekartzea dagokio, baina batez ere, berea bio baino bioagoa dela aldarrikatzea. Bere burua kalitatearen berme gisa plantatu behar du arrantzaleak. Hori du erronka.

Zeintzuk dira 68 urteko apez baten erronkak?

Zutik segitzea, herriaren erronkak nire egin eta aski indar eta kemen izatea beti gazte segitzeko. Langabeziari buruzko lan bat eraman nahi nuke, elikagai bankua bezalako proiektuak bultzatu, elkartasun sareak ehundu... baina ez unean uneko adabakiekin soilik, egiturak aldatuz baizik. Nondik sortzen da krisia? Nondik miseria? Erroetara jo eta saiatu gauzak aldatzen. Bistakoa da jendarteak funtzionamendu desegoki bat daukala. Denak ala inor ez, baina horrela ezin da. Nik ontzi bat bezala ikusten dut mundua eta ez dut jasaten, krisiaren izenean, jende bat kareletik itsasora botatzea bertan ito dadin. ■

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

EEE selektiboak izan ziren TSkoak, langile batzuk zigortzeko

Ion Basurko Flores *naiz, mutrikuarra, eta 40 urte ditut. Hamasei urtez TS Fundicionesen lanean aritu ondoren, langabezian nago iazko azaroan enpresa itxi zutenetik.*

OSO URTE GOGORRAK bizitzen ari gara. Orainaldian diot, enpresa itxita egon arren, hartzekodunen lehiaketan sartuta baitago, eta egoerari buelta eman eta enpresa berriz martxan jartzeko aukera ikusten baitugu. Ez gaude etsitzeko. Ezagutzen ditugu enpresa itxi eta berehala amore eman dutenak, langileak batu ez direlako edo muturreko egoera horretan beren esku-hartzearen balioaz jabetu ez direlako.

2013ko azaroan itxi zuten TS Fundiciones eta 150 langile geratu ginen kalean. Ondorengo sei hilabeteak zentimo bat bera ere kobratu gabe igaro genituen, eta izugarrizko estutasunak pasa behar izan ditugu etxean. Bikotekidearekin eta bi seme txikirekin bizi naiz, eta hipoteka daukagu ordaintzeko. Bikotekideak denbora erdiz egiten du lan, eta iritsi ezinda ibili gara. Bi hilabetetan hipoteka ordaindu ezin eta desjabetzeko prozesu juridikoan sartzen zara. Ingurukoei laguntza eskatzea besterik ez zaizu geratzen, baina joan egin behar da familiarengana diru beharrean zaudela azaltzera… Semeei ere esplikatu behar diezu Olentzero gurasoak garela, eta aurtengoan ezin izango diegula zuhaitz azpian ezer handirik utzi. Momentu honetan ondo gaude, dagoeneko langabezia prestazioa kobratzen ari bainaiz, baina urtebeteren buruan bukatuko zait.

TS Fundicioneseko langileon borroka lehendik dator. Bospasei urte izango dira enpresak bi lantegi zituela, 345 langile. Une gorena zen, baina erortzen hasi zen pixkanaka. Inguruan ixten ari ziren enpresa batzuk ezagutzen genituen, baina gurea ez genuen hain muturreko egoeran irudikatzen. Bi lantegi izatetik bakarrera pasa ginen aurrena, taldetxoak kaleratzen hasi ziren eta ondoren EEEi heldu zion zuzendaritzak. EEE oso selektiboak izan ziren, aukeratutako jendea izan zen horietan sartu zutena, eta nolabaiteko zigorra izan zen batzuentzat. Horren ondorioz, gaur egun langabezia prestazioak oso desberdinak dira langile batetik bestera; batzuoi urtebetekoa geratzen zaigun bitartean, beste batzuek dagoeneko ez daukate ezer. Bitarte horretan, enpresaburuek mugimendu bereziak egin zituzten, inbertsioak han eta hemen, dirua xahutu…

"Egoerari buelta eman eta enpresa berriz martxan jartzeko aukera ikusten dugu. Ez gaude etsitzeko".

2013ko urrian geratu zen enpresa, baina gu ez geunden kaleratuta oraindik eta lantegira joaten jarraitu genuen. Langile guztiok elkartu eta borroka estrategia prestatzen zortzi ordu ematen genituen egunero. Alde batetik, gure egoera kalera atera beharra geneukan, eta parodiak egin genituen Kutxa aurrean, hiru eguneko itxialdia enpresan… Eskualdean izugarrizko babesa izan dugu. Bestalde, hartzekodunen lehiaketan sartzekoak ginela eta, gure aldetik erostun bat bilatzen ahalegindu gara, TSko langileok lehentasunen artean jarriko gaituena. Eta gaurko egoera horixe da, presioa egiten jarraituko dugu, administratzaileak erostunen artean TSko langileon alde egingo duen enpresa bat aukeratu eta enpresa bideragarri egin dezan. ■

VIRGINIA BASURTO
ALBOAN FUNDAZIOA

«Mugikorretarako material ustiapenak ez luke gerra finantzatu behar»

Alboan Fundazioa, jesuitek Hego Euskal Herrian sortutako gobernuz kanpoko erakundea, uztailetik dago murgilduta bi urte iraungo duen *Gatazkarik Gabeko Teknologia* kanpainan. Besteak beste, ikusarazi nahi dute mugikor, ordenagailu eta bestelako gailuen eta Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdeko gerraren arteko harremana. Virginia Basurto fundazioko teknikaria da kanpainako arduradun nagusia.

| UNAI BREA |
Argazkiak: Iñigo Azkona

Zergatik nabarmendu nahi duzue gatazken eta teknologiaren arteko lotura?

Gatazketan gero eta eragin handiagoa dute baliabide naturalen ustiapenak eta salerosketak. Batez ere, gatazken finantzazioan. NBEren arabera, azken 40 urteetan sortu diren hamar gatazkatik lauk lotura zuzena dute baliabide naturalen ustiapenarekin. Kongo ekialdeko meategietan erauzten diren mineralak funtsezko osagaiak dira teknologia berrietan; kanpainaren bidez erakutsi nahi dugu zer eragin daukan gure bizi-estiloak beste leku batzuetan.

Eta zergatik bereziki Kongo?

Hango gatazkaren ezagutza zuzena dugu, lankidetzan ari garelako bertan diharduen

Errefuxiatuen Zerbitzurako Jesuitak taldearekin. Gerrak dirauen hogei urteotan haien proiektuetarako diru laguntza eman dugu, eta eurek helarazitako salaketak hemen zabaldu ditugu. Kongokoa ahaztutako gerra da, baina kontuan izan behar da Bigarren Mundu Gerraz geroztik hildako gehien eragin duen gatazka dela: bost milioi inguru. Hogei urte hauetan intentsitate desberdineko aldiak izan badira ere, indarkeria etengabe eman da.

Zeintzuk dira gatazkaren gakoak?

Zaila da esplikatzea, osagai asko daude: tentsio etnikoak, beste herrialde batzuen interesak, lurren kontrola... Guk beti azpimarratzen dugu gatazka konplexua dela eta mineralak hor egotea ez dela haren arrazoi nagusia. Hori konponduta ez litzateke beste guztia konponduko. Baina jakin badakigu talde armatuek mineralen salmentatik ateratzen dutela dirua, askotan meatzariei estortsio eginez. Gatazkan parte hartzen ari diren talde guztiek egiten dute hori, Kongoko ejertzitoak barne. Dena den, azken boladan egoerak hobera egin du, besteak beste AEBek 2010ean onartutako lege batengatik.

Zein lege ?

Dodd-Frank Act. Horren arabera, hango burtsan kotizatzen duten eta Kongon edo inguruko herrialderen batean ustiatutako urrea, tantalioa (alegia, koltana), wolframa edota eztainua erabiltzen duten konpainiek bermatu behar dute mineral horiekin ez dela Kongoko gatazka finantzatu.

Gatazka-mineral esaten zaie lau horiei, ezta?

Bai. Baina hori definizio hertsiegia da, hain zuzen Dodd-Frank legetik datorrena. Gatazka-mineraltzat lau horiek baino ez dauzkate, eta Kongori dagokionez bakarrik. Guri gustatuko litzaiguke definizioa zabaltzea, eta munduko edozein lekutan,

Kongoko Errepublika Demokratikoak 75 milioi biztanle inguru ditu. Meatzaritzatik sostengua ateratzen dutenen kopurua zortzi eta hamar milioi bitartekoa dela kalkulatu zuen Munduko Bankuak 2008an.

JULIEN HARNEIS-CC BY SA

baliabide naturalen ustiapenak edo saleroskeetak gatazka bat eragiten edo finantzatzen badu, horien erabilera erregulatzea.

Zuen kanpainaren webgunean ikus daitekeenez, Europar Batasuna ere ari da lege bat prestatzen. Horretan eragitea duzue helburuetako bat.

Bai. Zuzentaraua eztabaidatzen ari dira, eta guk sinadurak bildu nahi ditugu Europako Batzordeari eskatzeko legea gogorragoa izan dadila orain arte proposatu dutena baino. Alegia, mineral "zikina" ez erabiltzea derrigorrezko betebeharra izan dadila, AEBetan bezala. Europarako zuzentarau proposamenak, dagoen-dagoenean, borondatearen menpe uzten du mineral horiek erabiltzea ala ez. Hori ez zaigu gustatzen; borondatezkoa bada, enpresek badute

Bigarren Mundu Gerraz geroztik hildako gehien eragin duen gatazka da Kongokoa: bost milioi inguru

orain ere egitea, eta ez dute egiten. Berbarako, ELGAk (Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundea) gida bat kaleratu zuen, lau mineral horiekin arduraz jokatzeko, eta enpresek ez dute erabiltzen.

Eta Dodd-Frank legeak ekarri du onurarik?

Bai. Lege horri eta bertako gobernuak hartutako zenbait neurriri esker, gaur egun esan daiteke Kongon erauzten den mineralaren bi heren "garbiak" direla. Baina heren bat asko da oraindik. Eta kontsumitzaileok ez dakigu, ez daukagu modurik jakiteko, gure mugikorretako tantalioa, wolframa eta abar nondik datozen, zer baldintzatan ustiatu diren, nork atera duen etekina... Eta mugikorra dioanean, esan nezake, ordenagailua, tablet-a, kamera digitala... Europako legeak balio behar luke erosleok hori jakin ahal izateko. Kontsumitzaileok enpresei adierazi beharko genieke mugikorrak erabiltzen jarraitu nahi dugula, baina ez dugula nahi horrekin gatazkak finantzatzerik.

Munduko tantalio edo koltan erreserba ezagunen %80 Kongon dago. Ezinbestekoa da mineral hori teknologia berrietan?

Bai. Tantalioak, oso mineral kantitate txikiarekin, elektrizitate asko metatzeko gaitasuna dauka. Hori dela-eta, funtsezkoa da gailu txiki eramangarrietan. Beste metal batek bete lezake funtzio bera, baina askoz leku gehiago okupatuko luke. Alternatibak bilatzeko ikerketak martxan daude, baina dena den, Kongon ditugun lagunekin hitz egin eta gero gure jarrera da hango minerala ustiatzen jarraitu dadila. Bertako jendeak esaten du meatzaritzan jarraitu nahi duela, baina baldintza egokietan: bertatik ateratzen den etekina beraientzat izan dadila. Hau da, gatazka amaitu dadila.

Herbehereetako Fairphone enpresak egindako telefonoa darama argazki honetan Virginia Basurtok. "Mugikor 'garbiak' egiten dituzte, ez guztiz baina bai hein handi batean", azaldu digu Alboaneko kideak. Tantalioa eta eztainua Kongokoak dira, baina ez daude talde armatuen kontrolpean, eta muntaia Txinan egiten dute, "langileak baldintza duinetan ari direla bermatuz". Oraingoz, Euskal Herrian internet bidez baizik ezin dira erosi Fairphonen gailuak.

Nor ari da minerala ustiatzen? Zer enpresa?

Ez dira enpresa handiak, gizon eta emakume talde txikiak baizik. Eskuz egiten dute lan, batzuek zeru zabalean eta beste batzuek lurpean, inolako kontrolik eta segurtasun neurririk gabe. Orain saiakerak daude umeek behintzat lan egin ez dezaten, eta zerbait lortu da. Horrez gain askok talde armatuen estortsioa jasaten dute.

Multinazionalak ere ez dira urruti ibiliko, ordea...

Horiek Kongoko nahasmendua baliatzen dute lehengaiak merkeago erosteko. "Gatazka hau oso konplexua da eta guk ez dugu hor eskua sartzerik", esaten dute. Eta guk diogu agian gatazka konpontzeko ahalmenik ez dutela, baina euren esku dagoen guztia egin dezakete mineral salmentaren bidez talde armaturik ez finantzatzeko.

Emakumeen kontrako indarkeria Kongoko gatazkaren osagai nagusietakoa da. Zuen kanpainak horri ere erreparatzen dio.

Zoritxarrez, sexu indarkeria gatazka askotako elementua da, baina Kongoko kasua paradigmatikoa da. Urtero 100.000 bortxaketa daudela kalkulatu da –kopuru horri buruz eztabaida dagoen arren–, eta gainera salatu diren kasuak oso gogorrak dira: emakume bakarra hainbat gizonek bortxatzea, infektatutako objektuak erabiltzea... Emakumearen suntsiketa gertatzen ari da, eta haien bitartez komunitate osoarena. Beharrezkoa da emakume horiek beren bizitzen jabe bihurtzea. ■

Galde ketaun APP

Gazte... lehiaketa

www.galdeketaun.biz

nontzeberri
kultura sarean

EUSKARAREN nazioarteko egunа

B
Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

DANI BLANCO

Garbiñe Biurrun Mancisidor

✦

LEGELARIA

Katalunia bueltaka

KATALUNIARI eskaintzen diodan hirugarren hausnarketa da denboraldi honetan: lau artikuluetatik hiruk Katalunia izan dute hizpide. Eta, egoerari erreparatzen badiot, ez da azkena izango.

Azaroaren 9an, azkenean, herriak bere iritzia emateko aukera izan zuen, emozio handiz, nahiz eta oso aukera mugatua izan ikuspegi juridiko aldetik –ez zen "ofiziala"–. Badakigu gehiengoak ez zuela parte hartu –%36k eman zuen boza, hau da, 2.306.000 biztanlek–, baina egoera guztiz zaila eta nahasi horretan oso datu adierazgarria da, emaitza zehatza bezala –parte hartu zutenen %80k baietza eman zion estatu independentea eratzeko proposamenari, 1.850.000 inguruk–. Datu horiek bi interpretazio izan dituzte: alde batetik, Kataluniako indar politikoen eta sozialen gehiengoarena, positiboa, eta bestetik, Espainiako indar politikoen eta Kataluniako gutxiengoarena, negatiboa, parte-hartzearen eta independentziaren aldeko emaitza eskasa dela azpimarratuz. Edozein iritzi izanik ere, beste datu objektiboak kontuan hartu behar dira: 2006ko Estatutak 1.900.000 boz izan zituen alde, baina Espainian inork ez du aldarrikatu haren zilegitasunik eza.

Kataluniako gizarte zibilak hartu beharko du berriro ere prozesu horren agintea eta bidea ondo finkatu. Hasieran ez bezala, azkeneko denboraldian alderdi politikoek izan dute protagonismoa

Nola interpretatu politikoki hau guztia eta zabaltzen diren aukerak? Ez da erraza. Nork daki zer gertatuko den? Pertsonaia, aldagai, interes eta kalkulu asko daude. Azter ditzagun elementu batzuk:

Artur Mas, printzipioz, indartsu atera da eta horrela azaldu zen gau hartan, Mariano Rajoyri bi asteko epea eman zionean bere eskaerari erantzuteko. Bada, astebete igaro da geroztik eta ez dut mugimendurik ikusten, ezta itxurarik ere. Alderantziz, aurrera doa PSCrekin mantentzen ari den negoziazioa 2015erako aurrekontuetarako, horrek esan nahi du Masek ez daukala kontsultari berehalako jarraipenik emateko asmorik.

ERC ere egoera onean dago, baina ez da orain hilabete bat uste zuena, Masen indarberritzea dela eta. Gainera, ez zait iruditzen kontsultaren emaitza espero zuenik –itxaropen handiagoa zuela esango nuke, batez ere parte hartzeari buruz–.

Rajoy ere indarberritua atera dela esango nuke. Ez du kontsulta oztopatu "fisikoki", "normaltasunez" onartu zuen galdeketa burutzea eta bere eskuinetik kritika zorrotzak jaso ditu horregatik. Gainera, emaitza, esan bezala, ez da izan Katalunian askok espero zutena. Azkenik, fiskaltza lasai eta "independente" dabil asunto horretan, itxura "demokratikoagoa" emanez Espainiako Gobernuari.

Kataluniako gizarte zibilak hartu beharko du berriro ere prozesu honen agintea eta bidea ondo finkatu. Hasieran ez bezala, azkeneko denboraldian alderdi politikoek izan dute protagonismoa –horrela behar zen–, baina horrek, panorama ikusita, ez du bermatzen datozen hilabeteetan herriaren borondatea gauzatuko denik. Zeren eta, non daude denek aipatu dituzten hauteskundeak? Orain ez du ematen inori interesatzen zaionik: Mas PSCren sostenguaren bila dabil –legealdia amaitzeko izango da, ezta?– eta ERCk udal hauteskundeak irabazi nahi omen ditu –gainera, azken datuen arabera, CiUk mantenduko luke gehiengoa– eta ez luke interes berezirik hauteskunde autonomikoei aurre egiteko.

Eta, bukatzeko, non gelditu da aldebakarreko independentziaren aldarrikapena? Ulertu dudanez, hau eguneroko lanaren bitartez lortuko litzateke –uzten badiete, noski–. Horretarako, beharrezkoa al zen hau guztia? Kontsultari ematen ari zaion erantzun politikoa bere asmoarekin bat al dator?

Ez dakit, baina orain hilabete bat zirudiena gaur ez dut garbi ikusten. ■

Asisko Urmeneta ✦

DANI BLANCO

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA ✦

Legean Ka(n)tiatuta

NORBAITEK aho betez demokrata dela esaten badit, erne jartzen naiz. Izan ere, urteekin ikasi dut, bere burua demokratatzat duela dioenak, zinikoa ez bada, egiaren jabe delako ustea izaten duela, eta, hortik, hurrengo pausoa, beste guztiei bere demokrata-tasuna inposatzeko saiakeran aritzea izango dela.

Gizatalde batek besteei norberarena inposatzeko joera ez da egungoa. Izatez, historian zehar, eliteek euren inposizioa legitimatzeko modu desberdinak izan dituzte, bai liderraren karisma, bai ohituren indarra, edo armada garaiezin bat. Oinarrian, beti, bortxazko indarra.

Ilustratu liberalek, XVIII. mendean, garaiko elite burgesaren boterea babesteko kontzeptu berri bat asmatu zuten: legea. Liderrek, ohiturek, armadek agintzen dutena, derrigorrez eta mehatxuz betetzekoa bezala agerrarazten ziguten, eta legeak agintzen duena, ordea, norberak bere buruari, eta guztiok geure buruari inposatzen diogun betebeharra. Kantek teorizatutako autonomia moral haren ondorio sozial bezala.

Aurrerapauso handia izan omen zen hau, gizabanakoa, eta euren arteko elkarbizitza babesteko. Denok moralki autonomoak izan nahi dugu, eta hor, ustezko betiereko legean *katiatuta* utzi gintuzten elite zapaltzaileen aldeko ideologoek, burujabe izan nahian, geure burua euren menpe jarriz.

> *Legearen inperioa beste legitimazio moduak bezain inposatzailea da, baina sendoagoa, abstraktua*

Horren harira, demokrata ongileak entzuten ditut legea goraipatzen, guztien artean egina dela, guztiok betebeharrekoa, jendarteko bakea ziurtatzen duen abstrakzio aldaezina. Eta bakea, justizia, askatasuna edo eskubideen gaineko balio bilakatzen dutenez, demokrazia bera, hitzaren zentzua galduz, legea betetzean oinarritzen dute, herritarrak menpean irauna-razteko sistema politikoa zapaltzailea bihurtuz.

Eliteak egoera dagoenean jarraitzeko erabiltzen duen baliabidea da legea. Legearen inperioa beste legitimazio moduak bezain inposatzailea da, baina sendoagoa, abstraktua, ikusezina. Sakoneko sinesmen sor bezala barnerarazten digute, eta bereiztea ere zaila egiten zaigu: geure burua aske sentitzen dugu, eta legea, berezko betebeharrekoa.

Euren burua demokratatzat dutenak faxistak direla datorkit burura. Adibide asko daukagu demokrata horiek pertsona arriskutsuak direla konturatzeko, alde batetik, politikoki bikaintzat dutelako euren burua, eta etikoki besteak baino goragokoak sentitzen direlako, egia, eta beraz, ongia platoniko-kristaua (ateoa izan arren), zer den baitakite.

Ausartuko ote dira katalanak, azaroaren 9a eta gero, demokraziaren izenean legea apurtzen, bortxazko indar demokrata haien esku izanik? ■

XDZ

Joanes Etxebarria

✦

KAZETARIA

Jostuna

MAULEN deus gertatzen ez dela dioten Aste Santuko beilari euskaldunek ez dakite gutxia preziatzen. Ikus bestela beste egunekoa. Galtzak leku txarrean zulatu nituen eta josteko haria eta orratza ukanik ere, ez nintzen ausart nihaur konpontzen hasteko. Etxe ondoko jostuna aipatu zidaten.

Saltegira lehen aldiz sartu eta berehala denda ederra zela ohartu nintzen, nahiz eta ez den hori hemen aipatu nahi dudana. Ene aitzinean bi emazte baziren, neguko arropak erostera jinak. Hau eta hura berrogei euro. Eta *"comment va Thérèse?"*. Eta saltzaileak *"o, badakizü, toujours pareil..."*.

Berriketa luzatu zen eta andereak gehiago jakin nahi *"elle mange pas?"*. Eta saltzailea, herabe, *"doi bat jaten dizü bai, mais l'eau gélifiée et comme ça"*. Berriketa arrunta. Euskalduna zela oharturik, eta ohartu nintzelako soilik, ene galtzak euskaraz eman nizkion, eta euskaraz hartu zituen.

Istorio ttipi honek ez du gogoeta handirik piztu nahi, anekdota hutsa da; baina saltegitik ateratzean ikusi nuen sartzerakoan huts egin nuena, *Euskarari bai* pegatina. Detaile hori, segur aski, Aste Santuko beilari euskaldunek ikusi zuten. ■

DANI BLANCO

Xabier Mendiguren Elizegi
✦ IDAZLEA

Albo-kalte txiki bat

JOAN MARI TORREALDAIK, 1975ean, soziologiako bere doktore-tesia egiteko, orduko euskal idazleak hartu zituen ikergai, eta, haien artean egindako inkesta zabal batean oinarrituta, ikerketa luze eta sakon bat burutu zuen, handik bi urtera, beste eduki batzuk ere gehituta eta Elizegi anaien argazki-galeria guztiz inportante batekin, liburu mardul gisa plazaratu zena: *Euskal idazleak, gaur*. Luxuzko edizioa izan zen, Jakin taldeak gauzatu eta Lankide Aurrezkiak plazaratua, garai hartan Laboraleko marketin-buru zen Luis Iriondoren izaera baikor eta gartsuari esker, besteak beste.

1995ean, 20 urte igarota, euskal idazleen panorama dezente aldatuta zegoela susmaturik eta susmo hori datuetan ere egiaztatu nahirik, aurreko inkesta berritu, momentuko idazleen artean banatu, eta handik ateratako ondorioekin liburukote berri bat idatzi zuen Torrealdaik berak: *Euskal kultura gaur*; Jakin eta Laboralarekin batean Elkar fundazioak kaleratua 1997an. Guztiz bestelakoak ageri dira garaiko kezkak, eztabaidak, generoak (kazetariak eta saiogileak ia guztiz desagertu ziren idazle aipatuenen artean, fikziogileen mesedetan), baita argazkietako aurpegiak ere, Aitor Bayok eginak oraingoan.

2015 izango da datorren urtean. Beste 20 urte igaro dira, ia-ia. Aukera bikaina idazle-jendearen argazki dinamiko horrekin jarraitzeko, gure zimurrak nolakoak diren ikusteko

2015 izango da datorren urtean. Beste 20 urte igaro dira, ia-ia. Aukera bikaina idazle-jendearen argazki dinamiko horrekin jarraitzeko, gure zimurrak nolakoak diren ikusteko, urteotako aldaketa sozial, politiko, ekonomiko eta teknologikoek ofizio zahar honi nola eragin dioten galdetzeko, androzentrismo erabatekoa nola irauliz doan konstatatzeko, lankideen arteko hautuetan *top-ten* gustukoena nork osatuko duen kuxkuxeatzeko…

Tamalez, ez da halakork izango. Ez Torrealdaik eginda behintzat. Berari galdetuta esan digu gaiari buruz zituen paper guztiak Guardia Zibilak eraman zizkiola, *Egunkaria*ren kontrako operazioan. Hori, orain dela ia hamabi urte gertatu zen; baina ordutik hona gai horri loturiko auziak bizirik jarraitu du epaitegietan, besteak beste Torrealdairen beraren kontrako zigor mehatxu eta guzti. Garbi dago ez dela egoerarik onena, 70 urte bete eta gero, hirugarren ikerketa monumental bati ekiteko. Espainiar zapalkuntzak euskal kulturari ekarri dion beste kalte bat; oraingo hau ez horren handia, agian, baina kaltea azken batean.

Ba al da zuen artean soziologo gazte eta kementsurik, halako proiektu bati heldu nahi dionik? ■

ARGIA DURANGOKO AZOKAN

Plan bat proposatu nahi dizut

Laguna berandu datorrelako hasi ote zara hau irakurtzen tabernako barran? Postontzitik hartu ote nauzu egun luze baten ondoren etxera heldu zarenean? Badakit: norbaitek Facebooken jarri duelako –eman eskerrak gure partez– iritsi zara hona. Edonola, asko eskertuko dizut tarte txiki bat hartzea irakurtzeko.

| ARGIA |

KONTUA DA, ez dugula jakiten nola leitzen gaituzun. Eta zuk seguruenik ez dakizu nondik idazten dugun ARGIA. Etxe-orratzaren puntan dagoen erredakzioa etorri zaizu burura? Garaje bat? Salako sofan pijama jantzita lan egiten duen kazetari bat?

Harrigarria da: zenbat gauza esaten diogun elkarri eta ze gutxi dakigun batak besteari buruz. Eta, ez dakit zuk, baina guk batzuetan behar dugu bion artean dagoen kristala erretiratzea. Nor zaren jakin, zergatik zatozen astero aldizkari honetako orrietara edo edo-



Egutegia 2015

Jakintza eta irribarre puskak egunero

ASTEKO zazpi egunetarako, goizeroko (edo gauerako) irakurketa dosi txikia prestatu dizuegu, urtero bezala. Astelehenetan historia zati bitxiak irakurtzeko parada izango duzue. Demokrito filosofoak atomoa zer izan zitekeen ogi egin berriari esker jakin zuela ikasiko dugu adibidez, eta nola X. mendean, tronua berreskuratzeko Antso I.ak kiloak galtzeko dieta egin behar izan zuen. Asteartetan, etxerako lagungarri izango zaizkigulakoan hainbat gomendio eskaini ditugu, hala nola, zorriak eta arropako orbanak nola kendu. Asteazkenetan, animaliei buruzko bitxikeriez gozatuko dugu eta ostegunetan berriz, *hitzokeiei* esker ea ezpainetan irribarrea ateratzen zaigun. Ostiraletan, ARGIA aldizkarian argitaratutako bertsoen hautaketa egin dugu. Jakintsu eta artistek botatako esaldi laburrek zer pentsa emango digute larunbatetan. Voltairek esandako hau aurkituko duzue adibidez: "Zoriontsua izatea erabaki dut, biziki ona baita osasunerako". Igandeetan, irribarretxoa edo algara nagusi izan dadila, Kike Amonarrizen txisteek eragina.

Jakintza puska horiez gain, noski, urtero bezala itsasoari, eguzkiari eta ilargiari begiratu diegu eta Seaskaren izendegia eskaini dugu.

zein unetan webgunean jarri duguna ikustera. Seguru ez garela oso diferenteak. Zuk ere lan egiten duzu, horretarako aukera duzunean, bizimodua aurrera ateratzeko. Dena errazagoa izango zela uste zenuen. Asko aldatu dira gauzak. Eskema zaharrak borratu behar izan dituzu azken urteotan, dena zerotik hasi behar dela dirudi. Aurrera zoaz hala ere. Barre egiten duzu, maite dituzunekin elkartzen zara, bizi zara ahal duzun hoberen, egun bakoitzak ematen dizkizu motiboak "merezi du" esateko.

ARGIA zuretzat arrazoi horietako bat izatea besterik ez dugu nahi.

Elkarrekin zerbait egiten hasi nahi dugu

Hotza egiten du erredakziotik kanpo. Zuretzako lerro hauek idaztera sartu naizen egunean etxe honetan lan egiten dugunok elkarrengandik gertuxeago sumatu ditut. Taldeko beroan neguak ez du hain gordina ematen. Prozesu baten erdian gaude, gure funtzionatzeko modua ahalik eta parte-hartzaileena izan dadin.

Eta etxe barrurako balio duenak kanporako ere funtziona dezakeela uste dugu. Elkarren arrimuan daukaguna baino hobea den zerbait lortuko dugula. Animatuko ote zinateke gurekin zerbait egitera? Elkartu besterik ez dugu egin behar.

Nola? Noiz? Aukerak ez dira faltako, baina momentuz, Durangoko Azoka datorkigu eta hortik has gaitezke. Zer iruditzen gure standetik pasatzea? Harpideduna bazara, opari bat daukagu zuretzat gordeta, Bixente Ameztoyk aldaketaz beteriko beste garai batean, Trantsizioan, aldizkari hau artean zerukoa zenean, guretzat egin zituen azalen bilduma.

Kaxa txiki batzuk ere aurkituko dituzu gurera bazatoz. ARGIAren harpidetza bana dago barruan eta hazi bat, buztinetan bilduriK. Zu bezalako jendeak bere babes ekonomikoa ematen digunean, bizitza pixka bat ematen dio proiektu komunikatibo honi. Eta trukean zuri, edo gurekin gustura egongo dela uste duzun zure lagun horri, bizitza pixka bat ereiteko tresna eman nahi diogu.

Hazi bat oparitu eta negua pasatzean emango du landarea. Hazi asko oparitu eta komunikabide txiki hau baso bihurtuko da, haren gerizpean hitz egingo dugu aldatu denaz eta aldatu behar lukeenaz. Lagunduko diguzu?

Besterik ez nizun esan nahi. Orain zuk zer diozun entzun nahi dut. ■

Txiste liburua

Txorakikeriak saileko azkena... edo

1980AN hasi zen Kike Amonarriz umoreari tartea eskaintzen ARGIAko orrialdeetan, Titiriteroak sailean. Bi urte geroago –gaurdaino– astero-astero txisteak argitaratzeari ekin zion tolosarrak, eta harrezkeroztik horien hainbat bilduma plazaratu ditugu; lehenbizikoa 1983an, *Arpa jotzen* izenburuarekin. Ordurako Euskal Herri osoan barrena zebilen Amonarriz, Joxe Ramon Galarragarekin batera, txiste afariak egiten.

1998an Txorakikeriak saileko estreinako alea eman zen argitara; 2014ko Durangoko Azokan salgai jarriko den Azken txorakikeriak, berriz, bosgarrena duzu. Liburua azken hamarkadan ARGIAn argitaratutako txisteen hautaketa da.

Izenburuak, nahita, ateak zabalik utzi dizkio zalantzari: azkena behin betiko… edo momentuz baino ez? Ez jakin. Ezta egileak berak ere, aitortu duenez. Seguru da, ordea, denboraldi luze batean Kike Amonarrizen sinadura, 35 urtez ia-ia aldizkariaren berariazko osagaia izan dena, ez dela agertuko ARGIAn, ez behintzat txiste bati atxikita. Milaka batzuk idatzi ostean, garaia iritsi da luma mahai gainean pausatzeko.

2015eko lehen ARGIArekin batera hasiko da etena. Denborak esango du atsedena betiko den, edo oraindik Amon… barka, Kikek asmatu edo jasotako pasadizo gehiago ikustekoak garen orrialde hauetan. Momentuz, balio beza hutsunea betetzeko Azken txorakikeriak bilduma honek.

Europako Nazioak eta Petersen proiekzioa

Errealitatea beste era batera islatzen duten mapak

Durangon bi mapa izango dira eskuragai ARGIAren gunean, biek errealitatea ezohiko modu batean islatzen dute: Batetik, Europako herrien mapa berria. Europako kultur aniztasuna islatzen da, egungo estatuen egituratik harago. Eurominority elkarteak egin eta ARGIAk euskaratu du. Egun argia.eus/denda gune digitalean 15 euroan eros daiteke, bidalketa gastuak barne. Durangon 13,5 euroan eskura daiteke, garraiatzeko kartoizko hodi eta guzti.

Bestetik, Petersen Munduko Mapa ere eskuragai izango da euskaraz. Eurozentrismo menderatzailearen isla duen Mercatorren mapa munduan masiboki zabalduta dago. Petersen proiekzioak Mercatorrenak dituen akatsak zuzentzen ditu. Alemaniako historialariak kartografia hartu zuen oinarri munduko irudia egiteko, geografikoki eta politikoki herri bakoitzak behar zuen lekua izan zezan.

VITORIA GASTEIZ green capital

abenduak 3 euskararen eguna

euskara, zure frekuentzian

ARKIMEDESEN PRINTZIPIOA
Maskarada
PRINCIPAL ANTZOKIA, 20:30
SARRERA: 3 €
Salmenta
> PRINCIPAL ANTZOKIKO LEIHATILAN
Salgai, ohiko ordutegietan, 18:30-20:30,
asteartetik larunbatera (jaiegunetan izan ezik)
> TELEFONOZ: 945 16 10 45
> INTERNETEN BIDEZ

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

GURE GIZARTEARI BURUZKO HAUSNARKETA BAT, AZKEN HAMARKADATAKO EUSKAL ARTISTEN LANEN BITARTEZ

ERAKUSKETA

2014.10.24 – 2015.01.25

SUTURAK

lo próximo

cerca a

STM
San Telmo Museoa

Artium
Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo

WWW.SANTELMOMUSEOA.COM

ELKARLANA

Antolatzaileak

STM San Telmo Museoa

Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián

DONOSTIA 2016 SAN SEBASTIAN

donostiakultura.com

Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo

Erakunde babesleak

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

Patrono pribatuak

eitb

Kutxa Fundazioa

Enpresa ongileak

Cadena SER

GARA

Hamaika

El Diario Vasco

berria

naiz:

Argia

Haur eta Gazte Literatura

Eskola sorgindua.
Iñaki Zubeldia.

Irudiak: Estibalitz Jalón.
Ibaizabal, 2013

Abenturak eskolan

IÑAKI ZUBELDIAK eskaintzen digun istorioa bi unetan zatitzen da, lehena eta garrantzitsuena, arratsalde batean, eta bigarrena, lehen egun horren ondorioz eginiko jai bat dugu. Alde horretatik, Estibalitzi eskolan jazotakotik abiatzen da liburua; neskatilak gaua oso gaizki pasa ondoren, lo gutxi egin ondoren, eskolara doa eta bertan logaleak erreta dago; hain nekatua eta logale da neskatoa ezen komunera joan eta bertan lo goxo geratzen baita: "Loguraren zama hain astuna zenez, eserita jarri zenerako loak hartu zuen gajoa (…) neskatila lo sakon, astunean murgildu zuen. Arnasa baretu zitzaion eta munduko oherik gozoenean bezalaxe egin zuen lo". Estibalitz eskolan entzerraturik geratu da eta bertan zuzendaria bere bulegoan eta leihotik sartu den Panfilo loroa besterik ez dago; edo hori uste dute beraiek, gutxienez. Ustekabeak, egoera bereziak, aldrebeskeriaren batek eraginda suhiltzaileak, eta baita ertzainak ere, eskolara sartu eta amaiera zoriontsua emango diote Estibalitzen desagerpenari. Ondoren neskatilaren etxean ospakizun txiki bat egingo dute eskolako lagunek, neskaz kezkaturik han inguruan zeuden lagunek, eta guztien artean jai bat antolatuko dute amaiera zoriontsua ospatzeko; San Juan sua egiteko gauean alkatea ere bertan zelarik, suhiltzaileei, Estibalitzi eta, nola ez, Panfilo loroari eginiko omenaldi kuttuna: "Ume txikiek haiekin dantza egin nahi izan zuten. Eskolako sorginkeriak gogoratuz hasitako gau ospakizuna ametsetako festa bihurtu zen. Astrabuduako familiek eta bereziki txikienek ez dute berehala ahaztuko San Juan sua egin zuteneko gau magiko eta misteriotsu hura."

Eskola sorgindua ipuina nahiko erraz irakurtzen da, ekintzak eta elkarrizketak dira kontakizunaren elementu nagusiak eta, alde horretatik, arintasuna ematen diote testuari eta Zubeldiak aspaldi erakutsi zuen hizkuntzaren ezagutza aparta eta erregistro egokiaren erabilera. Hala ere, amaiera aldean kontakizunak ia ez du elkarrizketarik, deskribapenak hartzen du pisurik nagusiena eta behin eta berriro errepikatzen denaren sentsazioa du irakurleak; eta horrek astundu egiten du apur batean, bederen, irakurketa.

Gertakari sinple eta, era berean, umoretsu baten inguruan eraikitako kontakizuna dugu, beraz, sorgindurik dirudien eskola honen istorioa. Arin eta gustura irakurtzen dena. Eta Estibalitz Jalónen koloretako irudiek primeran osatzen dute ipuina. Ilustratzaile gaztearen lana aparta baita, aurreko lanetan erakutsitako estilo propio hori oraingo honetan ere azaltzen digularik ipuinaren tonuarekin asmatuz eta istorioa edertuz. ■

Xabier Etxaniz Erle

Camina conmigo.
Cabezafuego
Folk records / Happy place records, 2014.

Ausardia eta musika ezagutza

IÑIGO GARCES *Cabezafuego*-ri buruz liburu bat idatzi daiteke eta baita comic erraldoi bat ere. Iruindarra ipurterre hutsa da, nekaezina eta sortzaile gisa ez dauka parekorik, musika sortzen, hitz errepikaezinak idazten zein aurrera ateratzen dituen proiektuei irudimena eta umorea borborka gehitzen.

Oso gazte hasi zen hardcoretik haragoko bidea egin zuen Half Foot Outside taldean. Handik gutxira, ia muturrera, Los Bichos iparra zuen Jugos Lixiviados taldean zenbait instrumentu apurtuko zituen, nahita ziur. 90eko hamarkada erdian, baina, goitizena jarri zion orrazkera ezagun bihurtu zen Euskal Herriko rockzaleen artean, Mermaid taldearekin stonerrari eta psikodeliari (eta gerora estilo eta eskola zaharreko rock gogorrari) bidea zabaltzen. Taldea utzi zutenean gutako asko umezurtz utzi gintuzten.

Gerora, pop-rockerantz egindako hurbilketa ezohikoak etorri ziren: Royal Canal proiektu eder zein ausarta eta Black Lagun bizarroagoa. Eta ia aldi berean plazaz plaza aritu zen Bizardunak zein Atom Rhumba talde entzutetsuetan; batzuetan serio eta besteetan etengabeko trufa barrenean, egoeraren eta taldearen arabera.

Hori guztia gutxi balitz, orain dela pare bat urte bakarka emanaldiak egiten hasi zen gitarra alboan, Cabezafuego izenpean. Grazia bazuen, ikaragarria, baina kantuak biluziegiak ziren niretzat. Baina orain gutxi, biolin-jotzaile eta bateria batek lagunduta zuzenean berriro deskubritu dut, eta abestiei gorputz handiagoa gehitu die.

Orain hirukote gisa aritzen bada ere, honako diskoa grabatzeko hurbileko lagun asko batu ditu inguruan, eta ez edonolakoak: Joseba Irazoki, Felix Bluff, Nacho Beltran… Eta aitortu behar dut emaitzak onerako harritu nauela. Egia da aspaldian Cabezafuegorekiko aurreiritziak alde batera utzi behar direla, eta ildo berean onartu behar da azalean ematen duen etorri handiko mutila baino askoz harago doala, alegia kantuak sortzerakoan oso ausarta dela.

Lan honek badu folkik, rockik eta bestelakorik, baina pop-rocka da nagusi. Modu oso gardenean batzuetan, baina horren guztiaren azpian irudimen eta ñabardura handiekin. *Resaca de un bohemio* eta *Camina conmigo*, esaterako, *hit*-ak dira, hitzek kantatzen dituzten egiengatik, eta batez ere, melodia itsaskorren erruz. Nostalgia kutsua darie kantuei eta baita gustu zein musika ezagutza erabatekoa. Bada Josetxo Ezponda inspirazio duen Bichos-en gisako *zingira* kutsuko kanturik, baina psikodelia finena eta surfaren dotorezia ere erraz antzematen dira. Eta esango nuke Arthur Lee *Love* ere estudioan ezkutatuta egon zela grabazioko asteburuan. Baina diskoak perla asko ditu, norberak aurkitu beharrekoak, eta ez ditut guztiak azalera ekarriko. Nahiz eta, lehen aipatu bezala, sartu aurretik aurreiritziak kanpoan utzi behar diren.

A, eta biniloen karpetak Cabezafuegok berak eskuz eginak dira, barruko kantuen pareko mimoz eginak. ■

Iker Barandiaran

Euskal Herria ezagutuz

BERRIATUA (BIZKAIA)

Iheserako plan perfektua

Betebeharrek preso gaituzten egunerokoan ere, presoaren lehen betebeharra ihes egitea da. Lea-Artibai eskualdeak eskaintzen ditu horretarako aukera dezente. Horietarik asko, oso ezagunak. Beste batzuk, Berriatuan aurkitu ditzakegunak kasu, ez hainbeste. Asteon dakarkizueguna plan bat da: duela 500 urtez gaindi ibilia den Errege Bidearen zati bat eginez, egunerokoari ihes egiteko plan perfektua.

Testua eta argazkiak:

| AITOR KALTZAKORTA |

EUSKAL HERRIKO eskualderik euskaldun eta ederrenetakoan, Lea-Artibain dago Berriatua; *Berritxu* lagunentzat. Haren bihotzean, herriko plazan hasiko dugu Ondarroatik pasata Saturrarango (Mutriku) hondartzaraino doan ibilbidea. Hondarrezko pasealeku horian zehar kateatuko ditugu astiro urratsak eta jarriko ditugu emeki begiak, eskualdearen, herriaren eta herritarren birika berdeetatik iragan ahala.

Naturaren magalean amilduko gara, itsasaldeko kresala eta pago, haritz zein gaztainondoek tentetutako basoen hatsa nahasten dituen giroa arnasteko. Ez dira hauek, ez direnez, Lea-Artibaiko paraje ezagunenak. Bideaz gozatzea helburu, abiapuntua bera da helmuga: Berritxu. Izan ere, Saturraranera joan ordez, Ondarroaraino iritsi eta buelta egitea proposatuko dizuegu lerrootan. Bi ordutan ematen ahal den paseoa, ibilian-ibilian bidea eginez, presarik gabe, errege-erreginek lez.

Herriko plazatik Urepel plazara joango gara, mendien itxitasunaren artean dagoen zabalgunerako norabidean, ipar-ekialderantz. Mikel Lertxundi berriatuarrak landutako Lekuko eskultura multzoak apaintzen du plaza; zurezko, burdinazko eta harrizko iturri bana dago bertan. Urepeleko iturburuaren omenez, ur soberakinekin sortzaileak harrizko piezan jarritako ur-jauzitxoa dago.

Ibilbidea, tokiko bizimoduaren erakusleiho

Poliki-poliki, futbol zelaiaren ondotik pasako gara bertatik ikusten den zubi zuriraino. Horrexen ondoan hasten dira landareek sortutako tunelak. Haien barruko bidezidorretan abiaturik, 200 metro luzeko lehen aldapatxoa pasata beherantz goazela, eskuma aldera ditugu Olaetxe, Etxetxu eta Okola baserriak. Aurreraxeago, hainbeste berderen artean herdoilak duen xarma erakusten du Galdos zerrategiak. Arrain-kutxaz oro estalita ageri da begien aurrekoa, antzina, portuei begira bizi ziren mendialdeko herrien oinordeko. Zerrategi atzetik Obekola errota ikus daiteke, itsasoari bizkarra ematen dion talaia baten gisara.

Errotaren hegalak mugitzen ditu Artibai errekaren urak. Bere kiribilak orrazten jarraitzen du Errege Bideak, Arantzibia Dorreraino. Gutxi falta da Ondarroara iristeko.



Ezkerrean: Artibai ibaia, zuhaitz artean. Pinudiz lepo dagoen eskualdean, tokiko zuhaitzez osaturiko baso itxia da nagusi ibilbide honetan. Goian: Arantzibia Dorrea, bidearen azken txanpari ekin aurretik geldialdia egiteko toki aproposa.

20-30 minutu asko jota. Eta Artibai pasa berritan altxatzen da Orubia Azpikoa, Orubia Gojeaskoa eta Orubia Nagusia (Orubixe) baserriek osatzen duten lorez betetako auzune ederra. Segidan, berotegiz osatutako zelai zabala pasa eta gutxira dago, harro, XVI. mendeko Arantzibia Dorretxea; garaiko jauntxoen jauregi dotorea.

Bide horia birika berdean

Bide horiak udazkeneko orbelaren artetik ihes egin nahi duela dirudi. Ez du lan makala. Aitzina eginez, ordura arte laztandu ditugun zentzumenak labarretik Artibaira etenik gabe erortzen den uraren xaramelarekin goxatuko ditugu Aieriraino. Apur bat aurrerago dago Errenteria auzoa, Ondarroako sarrera. Bidearen azken zati honek gehitzen dio balioa beste guztiari; izan ere, lehen ez bezala, herri batetik bestera errepide nagusitik pasa gabe joateko aukera ematen baitu.

Buelta egin eta Berriatura ostera ere iristean, berriro zabaltzen da abanikoa. Baditu herriak hainbat auzo eta ibilbide eder deskubritzeko. Bestela, eskualdean bertan badira txokoak, abagunerik balego, iheserako plan perfektua luzatu eta borobiltzeko.

Atzera begiratu, aurrera egin

Gorabeherak gorabehera, 1.200 biztanle inguru izan ditu Berriatuak azken 100 urteotan. Uneotan, %90etik gora da euskaldun. Herrigunetik urruti samar, Kantauri itsasoarekin du muga alde batean. Mendexa, Ondarroa, Amoroto, Markina-Xemein eta Mutriku ere baditu mugakide. 1974an Ondarroaren auzo bihurtu zen Berriatua, baina herritarren desadostasuna medio, 1983an berreskuratu zuen udalerri izaera.

Ordutik, herriak ez dio bere burua edertzeari utzi. Esaterako, duela urte batzuk, Merelludi auzoko Lekoia Bekoa baserri ikusgarria berritu zuten, eta oraintsuago, Etxepintxoa etxe-monumentua eta beraren fatxadako margolanak, Arantzibia Dorretxea eta San Pedro eliza.

Biziberritutako guneen artean ezin aipatzeke utzi, noski, Ihesi honetan urratu dugun bidea, iraganean merkatariek erabiltzen zuten bera. Tradizioaren kutsua mantenduz, antzinakoa gaurkotuz, bertakoentzat zein kanpokoentzat pasealeku txukuna egin du Berriatuak. Plan perfektua. ■

Euskal Herrian ihesi

Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:
1. Arra. Artisau erara. 2. **Argazkian**. Herri hizkeran, zer. 3. Bi gehi bi. Irten, atera, jalgi. 4. Usoak egiten duten murmurioa. Musika taldea. 5. Larre are gabe. Hegazti mota. Garraiobide erregularra. 6. Zapi, ehun. Legez kanpoko salerosle. 7. Ezezkor. Ikuspen. 8. Bizkaiko badia. Apaintzera behartu.

Goitik behera:
1. Paper mota. 2. Nagoen lekura zerbait eraman. 3. Ume, sein. Hurbil. 4. Omen. Ufa eginez. 5. Zorigaitza, ezbeharra. 6. Zalantza, duda. Errepikatuz, gorotza. 7. Hegazti sarraskijale, putre. Zirkulazio-seinale. 8. Lokarria, lotura. 9. Arkua. 10. Zerorrek. Aparta, bikain. 11. Gai likatsua. 12. Seinale, marka. 13. Kaia. 14. Hegal, izkina. 15. Ene!, oi!

Sudokuak

Erraza

8	9		1			2	5	
	4		2					8
1	2	3	8		6			
4			7	3		6		
	5		6		9		3	
		2		8	1			9
			3		2	4	1	5
3					4		8	
	7	4			8		9	6

Zaila

	5			6		4		
	7				4	6	1	
			8					9
8	3	5				9		
	1						4	
		9				1	2	5
6					3			
	2	7	9				3	
		4		2			9	

Kike Amonarrizen umorea

Lapurrak

Herrialde musulmanetan lapurrak harrapatzen badituzte egiten dietena da eskua anputatu, Ipar Korean exekutatu, Norvegian inputatu eta Espainian diputatu.

Euskara azterketa

– Aita! Prestatzen lagundu zenidan euskarako azterketa ez dut gainditu.
– Lasai, alaba. Lortuko zaizu beste batean!

Ez dabil

Mikelek Aitorri :
– Ez dut ulertzen. Amaiak ohar bat utzi dit hozkailuan: "Honek ez du funtzionatzen. Banoa etxetik". Bada, hozkailua zabaldu dut eta oso ondo dabil!

Soluzioak

Erraza

8	9	6	1	4	7	2	5	3
5	4	7	2	9	3	1	6	8
1	2	3	8	5	6	9	4	7
4	8	9	7	3	5	6	2	1
7	5	1	6	2	9	8	3	4
6	3	2	4	8	1	5	7	9
9	6	8	3	7	2	4	1	5
3	1	5	9	6	4	7	8	2
2	7	4	5	1	8	3	9	6

Zaila

1	5	3	7	6	9	4	8	2
9	7	8	2	5	4	6	1	3
2	4	6	8	3	1	7	5	9
8	3	5	4	1	2	9	6	7
7	1	2	6	9	5	3	4	8
4	6	9	3	7	8	1	2	5
6	9	1	5	8	3	2	7	4
5	2	7	9	4	6	8	3	1
3	8	4	1	2	7	5	9	6

Ezker-eskuin: 1. Zehe, Eskuz. 2. Ekaitza, Ze. 3. Lau, Abiatu. 4. Urruma, Mak. 5. Lr, Faisai, Linea. 6. Oihal, Trafikari. 7. Ukakor, Ikuste. 8. Abra. Apainarazi.

Goitik behera: 1. Zelulosa. 2. Ekarri. 3. Haur, Hur. 4. Ei, Ufaka. 5. Tamala. 6. Ezbai, Ka. 7. Sai, Stop. 8. Amarra. 9. Uzraia. 10. Zeuk, Fin. 11. Lika. 12. Ikur. 13. Nasa. 14. Ertz. 15. Aici.

BI HOTS

Dialektikaren poderioa

HARRERA ONA, oso, dantza eta arte eszenikoetako hainbat diziplina uztartzen dituen *Bi hots* ikuskizunak Bilboko estreinaldian (azaroaren 1ean, BAD jaialdian) jaso zuena. Izan ere, La Merced ikastetxean ziren 150 inguru ikusleek, zutunik, eskainitako txalo zaparradak behartuta, hiru alditan atera behar izan zuten agurtzen antzezleek.

Eszenografiaren aldetik ikuskizun xumea bada ere, oparoak dira *Bi hots* obrak jorratzen dituen bideak zein eskaintzen dituen emaitzak. Izen berak azaltzen duen bezala, kontrakoen arteko borroka, dialektika bera, dugu ikuskizunaren ardatz. Hegelek eta Marxek sistematizatutako prozesua oholtzara eroan dute lanaren egile eta antzezle Naiara Mendiorozek eta Javier Murugarrenek. Irrintziak eta operetak, andrea eta gizona, egurra eta burdina, marrak eta borobilak, lurra eta sua, ekaitza eta barea ditugu, besteak beste, arte eta sormenaren gaineko hausnarketa, esperimentazioa, bultzatzeko baliatzen diren elementuetako batzuk.

47 minutuko ikuskizun hau bi ataletan dago banatuta. Lehenengoari, Mendiorozen eta Murugarrenen ahotsek ematen diote hasiera. Argiak baino ez dituen agertokian, aurrez aurre, elkarri begira, antzezle biek tonalitate, erritmo eta hizkuntza askotako solasaldia sortzen dute; aurrera egin ahala, gero eta biziagoa bihurtzen den elkarrizketa-borroka horrek –ia-ia, mantra bilakatuta, hunkituta, trantzean lagatzen du ikusleria–. Ozta-ozta, Bingen Mendizabalen musikak lagunduta, ahotsak oihartzun bihurtzen dira, eta dantza egiteko gonbidapena luzatzen da. Marrak, borobilak, hutsuneak… Makila-dantza berezia dugu, haragia eta egurra uztartzen eta elkarren kontra kokatzen dituena… Ala gizatxalaparta dugu? Bitxia, eraginkorra. Esango nuke literatura figurak ere (aliterazioak, zangalatrauak, errepikatzeak) bihurtzen dituztela hotsak zein mugimenduak, hartan bezala, musikaltasuna lortzeko bidean.

NAHIKARI MORA

Hamar minutuko atsedenaldiaren ostean, txalaparta bat agertzen da oholetan, alde batetik bestera mugitzen dena; Murugarrenek erritmo biziari ekin bitartean, hara non beste bigarren bat agertzen zaigun, Javier Olaizolarena: txalapartek ere, soinuguda batean sartuta, dantza egiten dute. Baliteke, antzeko elementuak baliatzen dituen *Herritmo* lanean gertatzen den bezala, tradizioaren inguruko aipamena izatea txalapartaren erabilpena, baina nik eguneroko musika izeneko joeran (egunero gure inguruan diren elementuak musika sortzeko erabiltzen dituena) ere sartuko nuke, txalaparta aspalditik baita guztion bizitzan presente dugun osagaia. Bestalde, Olaizolak eta Murugarrenek txalapartaren egungo erabilpena egiten dute: jazzean bezala, inprobisatu egiten dute. Azken batean, Dexter Gordonek behin esan zuen moduan, "jazza ez da egiten duzuna, zelan egiten duzun baizik".

Borroka bizian segituko du bikoteak hang-a (metalezko instrumentua) eta harriparta (harrizko txalaparta) jotzen. Bitartean, Mendiorozek txalaparten oholak baliatuko ditu zerbait eraikitzeko: hesia, bidea…

Bi hots ikuskariak gozatzera eta pentsatzera behartzen gaitu. Nork bere ikuskizuna izatera animatzen gaitu; ikuskizunak bere baitan sartzen gaitu eta normalean ahaztuta dugun ezaugarri garrantzitsu bat, sortzea, askatzen du.

Argiztatzearen ardura, garrantzitsua betiere, David Alcortarena da. Paz de Ziganda abesbatzarenak dira ikuskizunean entzuten diren ahotsak. Eusko Jaurlaritzak ekoitzitako lan honetan Mallorkako Centre Cap Vermell, Deustuko ZAWP, Malasiako Rimbun Dahan, Arabako Azala eta TAE zein Atarrabiako Kultur Etxea elkarteek ere parte hartu dute. Hil honetan Bilboko BAD, Kuala Lunpurreko Kaleidoscope eta Atarrabiako Inmediaciones jaialdietan izan dira. Abenduaren 19an, berriz, Azpeitian izango da ikusgai. ■

Alvaro Hilario Pérez de San Román

Philae espazio moduluaren jauziak Tchuri kometan



ESA-CC By SA

Azaroaren 12an, Europako Espazio Agentziak (ESA) bidalitako *Rosetta* zundaren *Philae* moduluak lur hartu zuen 67P kometan. Kometa horrek Churyumov-Gerasimenko du beste izena, eta Tchuri ere esaten zaio.

Ikustekoak izan ziren ESAko teknikarien algarak eta besarkadak *Philae*-ren lurrartzea iragartzean, ez baitzen txantxetako lana izan 50 milioi kilometrora dagoen harri puskan zunda kokatzea. Egunak igarota, xehetasun gehiago jaso genuen lurrartzearen uneaz eta bertan gertatutakoaz. Antza, *Philae*-k kalkulatutako lekuan pausatu zen, segundoko 50 zentimetroko abiadura zuela, baina motelgailuek ez zuten lurrartzearen talka arindu, eta ontziak kilometro bateko jauzia egin zuen. Berriro lurra hartu eta beste jauzitxo bat egin zuen, eta hirugarren saiakeran, azkenik, kometa gainean gelditu zen. Jauzien zergatia kometaren grabitate txikia da. *Philae*-k ia 100 kilogramoko pisua du Lurrean, baina gramo batekoa besterik ez kometan.

Gertatutakoaren ondorioz, *Philae*-ren kokapena ez da espero zena. Modulua itzal eremu batean pausatu zenez, bateriak kargatu ezinik zegoen lerro hauek idazteko unean. Bolada baterako isilik geratu da, beraz, eguzkiaren izpien zain. ■

15 urteko etenaren ondoren, itsasoen beroketa berriz abian

Brocken Inaglory-CC By SA

Azken hamabost urteotan ez da aldaketa esanguratsurik izan Lurreko itsasoetan neurtutako tenperaturetan. 1998an El Niñoren ondorioz izandako tenperatura hazkundeak 2014ra arte iraun du.

Aurten, aldiz, beste igoera bat gertatzen ari da, batez ere Ozeano Barearen iparrean nabaritu dena. Horrekin batera, alisio haize freskoak inoizko ahulenak izan dira. Behin betiko ondorioak ateratzeko goiz samar bada ere, 2014 hasierako tenperatura hazkundeak urte osoa iraun du eta horrek zientzialarien arreta bereganatu du. ■

Ama hizkuntza ahaztu arren, garunean gelditzen da

Kanadako frantses hiztunekin egindako ikerketa baten arabera, gure burmuinak erreakzionatu egiten du txikitan ikasitako eta ondoren ahaztutako hizkuntza bateko soinuak entzuten ditugunean. Emaitzek berretsi egiten dute bizitzaren hasierako urteak oso garrantzitsuak direla ahalmen mentalak eraikitzeko.

ttiki.com/90858
(Frantsesez)

Fabiola Gianotti, CERNeko buru berria

Ikerkuntzaren alorrean gero eta emakume gehiago dagoela begien bistakoa da, baina euren lana ikerkuntzara mugatzen da gehienetan; gutxitan dihardute ikerketa-zentroen kudeaketan. Berriki, berdintasunaren bidean urrats esanguratsua egin da: munduan dagoen ikerketa zentrorik garrantzitsuenak, Genevako CERNek, iragarri du 2016tik aurrera Fabiola Gianotti italiarra izango dela bertako zuzendaria.

ttiki.com/90859
(Gaztelaniaz)

Gosari egokiak gosea erregulatzen du

AEBetako ikertalde baten arabera, proteinetan aberatsa den gosaria jateak egun osoko gosea erregulatzen laguntzen du, eta batez ere gauekoa. Horrela, hobeto lo egiteaz gain, hainbeste hedatzen ari den gizentasuna hobeto kontrolatu daiteke.

ttiki.com/90860
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak multimedia aholkularitza edukiak

iametza interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

| JAKOBA ERREKONDO |
mandio@zerain.com

Nafarrak

MARIA CONCEPCIÓN EZPELETAREN SEMEAK, Francisco Javier Girónek, Espainiako Guardia Zibila sortu zuen 1844an. Beraren aitona, Maria Concepciónen aita, José Manuel Ezpeleta Galdeano (Iruñea 1739-1823) izan zen, Kubako gobernadore (1785-1789), Nueva Granadako –egungo Kolonbia– erregeorde (1789-1797), Kataluniako Kapitain Jeneral (1808) eta Nafarroako erregeorde (1814-1820). Kolonbian, besteak beste, botanika bidaldiak sustatu zituen. Tartean, José Celestino Mutisen espedizio sonatua (Pedro Ursua arizkundarrak 1549an han sortutako Pamplona hirian bizi izan zen Mutis). __30 urte luzatu zen bidaldia, baina lurralde haien aberastasun ikaragarriaz jabetzeko bidea garbitu zuen. Landare eta animalia ugari izendatu zituzten. Lan horretan, landare genero berri bati *Espeletia* izena jarri zion Mutisek, bere mezenasaren oroigarri. Genero horren ahaide gisa, Cuatrecasas i Arumí botanikari gironarrak, lehengo mendean, *Coespeletia* eta *Espeletiopsis* generoak izendatu zituen.

Ameriketako botanikan nabarmena da izen euskaldunen emana. *Espeletia*, *Coespeletia* eta *Espeletiopsis* horiez gain, hor daude lehendik ere aipatuak ditugun *Uribea*, *Aristeguieta*, *Echeverria* eta *Lardizabala* ere.

José Celestino Mutis (1732-1808), landare genero berri bati *Espeletia* izena jarri zion botanikaria.

R. CRISTÓBAL

Emana, ordea, ez da hor bukatzen... Txilen, adibidez, landare mordoxkak du euskal deituraren bat.

Larrea generoa, bost espezie biltzen dituena. Zientziak eta arteak bultzatu zituen Juan Antonio Hernandez de Larrea elizgizonaren omenez.

Lastarriaea, Txileren alde Jose Victorino Lastarria (1817-1889) diputatu iraultzaile eta idazleak egindako lana oroitarazteko.

Ercilla, bermeotarren seme Alonso Ertzilla Zuñiga poetaren omenez, Txileko historiako poema epiko handienatzat duten *La Araucana* idatzi zuelako.

Luzuriagaceae familia eta *Luzuriaga* generoa, Areatzako Ignacio M. Ruiz de Luzuriaga (1763-1822) doktore kirurgialari eta botanikazalearen goresle.

Silvestre Ochagavia Errazuriz (1820-1883), Justizia, Kultura eta Instrukzio Publiko ministroa izandakoaren gorazarrezko *Ochagavia* generoa.

Urmenetea generoak gogora dakar José Tomás Urmeneta Garcia (1808-1878) filantropoa. Rodulfo Amandus Philippi botanikariak jarri zion izena; bera zuzendari zen museoari dohaintza handi bat egin zion, eta ordainetan nonbait. ■

37

Udazkeneko egun motzenak gainean ditugu eta hasi hurrengo uda berriari tamaina hartzen. Zer landatu, zer erein... Hartu pentsatzeko denbora. Hona proposamen bat: Bettina arrosa. Lehengo mendean Frantziako Francis Meillandek sortua da. Badu aldaera igokaria ere. Loreak laranja-gorriztak dira, usain izugarria dutenak. Bakoitzak 37 petalo ditu. Bazterrak miatu eta ahal baduzu eskuratu. ■

Gurpilak saltzeko ideia biribila, jatetxe gida ezagunenaren jatorri

CLERMONT-FERRAND (OKZITANIA), 1900. André eta Édouard Michelin anaiek Frantziako auto-gidari aitzindarientzako errepide gidaliburua prestatzea eta argitaratzea erabaki zuten. Hamaika urte lehenago Michelin gurpil fabrika abiarazi zuten, eta negozioak etorkizun handia izan arren, promozio pixka batek kalterik egingo ez ziela pentsatu zuten. Hala, bi urte lehenago, 1898an, *Bibendum* maskota sortu zuten, O'Galop diseinatzailearen laguntzaz. Nahiz haren izena oso ezaguna ez den, panpinaren irudia ikono bihurtu zen, zenbaitetan "michelin" hitza txitxien sinonimo bihurtzeraino.

1900ean argitaratutako lehen Michelin Gida hark errepide mapak biltzen zituen, jakina, eta garaiko gasolindegi eta tailer mekaniko urriak non zeuden jasotzen zuen. Badaezpada gurpilak norberak aldatzeko eta matxura errazak konpontzeko jarraibideak ere gehitu zituzten, eta larrialdietarako guardiako medikuen berri ere ematen zen.

Lehen urte hartan 35.000 ale banatu zituzten doan, kopuru ikaragarria orduan Frantziako Estatu osoan 2.400 auto inguru zeudela kontuan hartuta. Baina liburuaren helburua, aurrez zeudenen beharrei erantzuteaz gain, auto-gidari berriak sortzea zen; kotxe gehiago salduz gero, Michelin anaiek gurpil gehiago salduko zituzten. Eta ez soilik Frantzian. 1904an Belgikako gida atera zuten, 1907an Aljeria eta Tunisiakoa, eta 1909an ingelesezko bertsioa argitaratu zen lehenengoz.

1929ko Michelin Gida 25 liberaren truke saldu zen. Ordurako jatetxeen gomendioak egiten zituen, eta Michelin anaiek izarrak erabiltzea pentsatuta zuten. Handik bi urtera zehaztu zuten egungo hiru izarren sistema.

Lehen Mundu Gerrako etenaldia eta gero, 1920ko hamarkadan, Michelin Gida *Bibendum* panpina bailitzan gizendu zen. Doakoa izateari utzi zion eta orri kopurua handituz joan zen, informazio atalekin batera. Gaua non eman, non bazkaldu edo afaldu... Hotelak agertzen hasi ziren eta, jakina, jatetxeak. 1926an Michelin anaiek pentsatu zuten jatetxeak gomendatzeko erraz ulertuko zen sistema sinbolikoa behar zutela eta horretarako izarrak erabiltzea erabaki zuten. Baina hiru izarren sistema ezaguna ez zuten 1931 arte finkatu. Azkenik, 1936an, izarren esanahia definitu zuten:

- Izar bat: oso jatetxe ona bere kategorian.
- Bi izar: sukaldaritza bikaina, desbideratzea merezi du.
- Hiru izar: sukaldaritza onenetakoa, bidaia horregatik bakarrik egitea merezi du.

Izarren itzalean, beste mito bat sortu zen: jatetxeen maila balioesteaz arduratzen den ikuskarien armada misteriotsua. 2009an *The New Yorker* aldizkariak Michelin Gidaren ikuskariei buruzko erreportajea argitaratu zuen; espioitza nobela dirudi: "Michelinek ahalegin izugarria egin du ikuskarien anonimotasunari eusteko. Enpresaren goi kargu gehienek ez dute sekula ikuskaririk aurrez aurre ezagutu: ingurukoekin eta senitartekoekin lanbideaz ez hitz egiteko gomendatzen diete; eta Michelinek ez die sekula baimenik eman kazetariekin hitz egiteko". ■

Arrastoak

Eztiak gozatu zituen Historiaurrea eta Antzinaroa

REESE HALTER

BICORPEKO Armiarmaren haitzuloko (Valentzia) pintura batean gizakiak eztia biltzen agertzen dira, erleak inguruan biraka dabiltzala. Horregatik dakigu Historiaurrean gizakiek jakiak eztiz gozatzen zituztela, Neolitora arte erlezaintza garatu ez zen arren. Antzinaroan ere, Mendebaldean behintzat, eztia zen gozagarri nagusia, beste bide batzuk ezagutzen baziren ere. Alexander Handiaren almirante batek Indian ikusi zuen lehenengoz azukre kanabera: "Bada kanabera mota bat eztia erlerik gabe sortzen duena" idatzi zuen. Haren berri izanagatik, kanabera azukrea ez zen Erdi Arora arte nagusitu, eta Aro Modernoan hasi zen hedatzen erremolatxa azukrearen ekoizpena. ■

RAFAEL PAREDES,
ETORKIN ELKARTEKO ABOKATUA

«Etorkina egun lehiakide da, eta talka dator, xenofobiaren arriskua»

Iruñeko Jarauta karrikako etxabe ilun eta mehar batean du egoitza Etorkinek, beste herrialdeetatik etorritako herritarrei lege-aholkularitza ematen dien elkarteak. Rafael Paredes bertako abokatuaren esanetan "etorkinak lan egiteko irrikaz daude".

| KOLDO AZKUNE ETXABARRI |

KOLDO AZKUNE

DIRU SARRERA eskaseko etorkinak, justiziaren gastuak ordaintzeko modurik ez dutenak, hartzen dituzte Iruñeko Etorkinen bulegoan. 27.000 bisita baino gehiago jaso dituzte 2009an lanean hasi zirenetik. Lantaldean liberatu bakarra dago, Rafael Paredes abokatua, eta psikologo baten eta zenbait boluntarioen laguntza jasotzen dute. Bertara jotzen duen nornahiri zabaltzen dizkiote ateak, nongoa den edo ze izena duen galdetu beharrik gabe. Etorkinen sufrikario eta pozen testigantza zuzena jasotzen dute Etorkinen, aurreiritzi eta estereotipoak alboan utzita.

Gasteizko alkateak agertu du etorkin batzuei, magrebtarrei kasu, oinarrizko errenta jasotzeko baldintzak gogortu behar zaizkiela, laguntzei esker bizi nahi omen dutelako.

Ez dugu adierazpen hauei aurre egiten asmatu. Edo administrazioak ez du bere lana taxuz egiten, edo alkatea gezurretan ari da. Magrebtarrak eta beltzak laguntza horiek kobratzeko kinkan badaude, kobratu ditzatela. Eta gabeziak Gasteizko batek baldin baditu, edo Laguardiako beste batek, jaso ditzala eta kito. Baldintzak betetzen dituztela? Laguntza merezi dute. Adierazpenok asmo txarrez egiten ditu, botoak irabazi nahi dituelako. Zerbitzu hauengatik ere gizartean norgehiagoka baitago. Bertakook ere gizarte-laguntzen premia dugu, eta alkateak esaten digu beste horiek kentzen dizkigutela. Etorkina, egun, lehiakide bat da. Mahats bilketan, adibide bat jartzearren, lehen ez bezala hemengo jendearekin elkartzen dira, eta talka dator, xenofobiaren arriskua.

Eta iruzurrik balego?

Nafarroan ere Iñigo Allí kontseilariak iruzurra zegoela esan zuen. Ondorengo ikerketek %0,7ko iruzur eskasa erakutsi zuten. Salaketa hauekin baliabide gutxiko jendearen botoa lortu nahi dute. Nondik ateratzen ditu botoak Le Penek Frantzian? Gure buruzagi hauek ez dira ohartzen suarekin jolasten ari direla. Arabako Diputazioko presidentea eta Gasteizko alkatea arduragabe hutsak dira.

Etorkinek osasun zerbitzuak ere behar baino gehiago erabiltzen dituztela esan ohi du zenbaitek.

Hori faltsua da. Gehienetan gizon eta emakume gazteak direnez, osasun-zerbitzuak gutxien erabiltzen dituzten hiritarrak dira. Are gehiago, Espainiako Gobernuak, paperik ez edukitzeagatik edo lanik gabe egoteagatik, doako osasun zerbitzuak jasotzeko eskubidea kendu die. Eta hau erloju-bonba bat da. Administrazioak ez ditu kontrolatzen hemen ezagutzen ez ditugun gaitzekin jotako jendea, gaitz tropikalekin gehienak, ebola kasu. Ez al da sen onekoa guzti hori kontrolpean izatea? EAEko eta Nafarroako ospitaleetan, behinik behin, oraindik artatzen dituzte.

Gurea bezalako krisi egoera batean zein da oinarrizko errentaren garrantzia?

Funtsezkoa da. Nafarroan murriztu eta murriztu ari dira. 2012 urtera arte errenta nahiko duina genuen: ez zituzten pertsonak egoera administratiboengatik bereizten, eta urtebetez hemen bizi izatearekin aski zuten. UPN eta PSNren koalizio gobernuarekin, Elena Torres sozialista Ongizate Departamentuko burua zela, murrizketak hasi ziren: bi urteko erresidentzia, paperik gabekoen bazterketa... Lotsatzeko modukoa bada ere, sozialistak joatearekin batera arindu zituzten baldintzetako batzuk. Orain, adin txikikoen ardura bere gain duten familiek laguntza jaso dezakete, paperak eduki ala ez. 2012ko egoerara bueltatu beharko ginateke, gutxienez.

> **“UPN eta PSNren koalizio gobernuarekin murrizketak hasi ziren: bi urteko erresidentzia, paperik gabekoen bazterketa... Lotsatzeko modukoa bada ere, sozialistak joatearekin batera arindu zituzten baldintzetako batzuk”**

Saharaz hegoaldeko etorkinen egoera zuzenean ikusteko aukera duzue. Nolakoa da?

Immigrazioa arras fenomeno konplexua da, eta anitza. Txinatarren edo pakistandarren immigrazioa ez da berdina. Hegoamerikarrak, jeneralean, abioiez etorri ziren; Saharaz hegoaldekoak, txalupaz edo Melillako hesitik gora salto eginez, basamortu erdia baino gehiago oinez edo ahal izan duten moduan gurutzatu eta gero. Latinoak klase ertainekoak ziren batik bat, hona etortzeko 5.000 dolar inguru bildu behar zituzten, eta Bolivia bezalako herrialdeetan hilean 200 euro jasotzen dituzte batez beste. Zeinek ordaindu zezakeen, bada, bidaia? Txiroenek ez. Ghana, Mali, Liberia, Kamerun edo Senegaleko etorkinak, berriz, pobre-pobreak dira, sorterrian utzi duten familia diruz laguntzeko zamarekin datozenak. Eta afrikarrentzat familia ez da aita-ama eta seme-alabak. Han familiaren kontzeptua askoz zabalagoa da.

Saharaz hegoaldeko etorkinez solas egiterakoan mafiak aipatzen dira. Mafiak dira penintsularaino hurbiltzen dituztenak, mafiak dira karriketan saltzen dituzten produktuen gibelean ezkutatzen direnak...

Inondik inora. Uste baino mafia gutxiago dago. Han uzten dituzten senideengatik datoz hona. Euren herrialdeak nola dauden ikusi besterik ez dago: Niger, Mauritania, Ghana, Kamerun, Ginea Conakry, Mali. Familiengatik euren buruak arriskuan jartzen dituzte. Niri kontatu didate nola, udan bertan, Ozeano Atlantikoan, txalupan lagunak hotzaren hotzez hiltzen ikusi dituzten. Eta itsasora jaurtitzen zituzten gorpuak, txalupan leku gehiago izateko. Pateretako jabeek 100-200 euro-edo kobratzen dizkiete, baina beraiek familiak laguntzeko etortzen dira.

Gurera iritsita, Europarekin zituzten aurreikuspenak betetzen zaizkie?

Ez, ez dira betetzen. Baina paperak lortzeko sei urtez zain ibili zen Senegaleko etorkin batek esan zidana errepikatuko dizut: “Rafa, ni hemendik ez noa. Belarra jango dut gutxienez, baina ez noa”. Saharaz hegoaldekoak ez datoz, orokorrean, diru apur bat biltzera edo bizitza-proiektu bat aurrera ateratzera, espainolek atzerrian, Alemanian edo Frantzian, egiten zuten moduan. Bizitza arriskuan jarri dute hona etortzeko. Nola itzuliko dira zer jateko ez duten leku batera? Ez dauka zentzurik. Beren ilusioa sorterrira abioiez joatea da, oporretan, senide guztientzako opariak daramatzatela. Ez doaz bertan gelditzera. Familiaren dirusarrera nagusia dira. Afrikan ez dago Gizarte Segurantzarik, ezta antzekorik ere.

Eta zein da gutaz duten irudia?

Niri esaten didate euskaldunak bezalakorik ez dagoela. Eta ahalko balute denak gurera etorriko liratekeela. Hotzak, hori bai, atzera eginarazten die. Telebistatik beltzen oso irudi negatiboa igortzen digute. Melillako hesira igotzen diren 40 gizonak gu inbaditzera datozela dirudi. Eta azken 10 urtetan 30.000 inguru sartu dira bakarrik. Krisia baino lehen, Boliviatik, egunero 3-4 abioi iristen ziren, topera beteta. Ekuadorreko milioi bat etorkin izan ditugu, Errumaniatik beste milioi bat, 400.000 boliviar... Eta lau beltz datoz eta ez dago beraientzat lekurik?

Administrazioarentzat etorkin onak eta gaiztoak daude?

Noski baietz. Gaiztoak laguntzak eskatzen dituztenak dira. Eta, benetan esaten dizut, lan egiteko irrikaz daude. Atzo oinarrizko errenta jasotzen duen afrikar bat etorri zen bulegora. Pozez gainezka zegoen, aldi baterako lanerako enpresa batek hilabeteko kontratua egin ziolako. Loteria tokatu izan balitzaio bezala sentitzen zen. Nahiago dute, mila bider, lan egitea laguntzak jasotzea baino. Egia da batzuetan magrebtarrekin talka ematen dela. Eta egia da ere beraiek ere pittin bat ireki beharko liratekeela, ezjakintasunak mesfidantzari bide ematen diolako. Gasteizko alkatea ez da tentela, eta badaki nora apuntatu, gizartean magrebtarren aurkako jarrerak baitaude.

“Bizitza arriskuan jarri dute hona etortzeko. Nola itzuliko dira zer jateko ez duten leku batera? Ez dauka zentzurik”

Azkenaldian, Caritasek txosten bat karrikaratzen duenean, ematen du talde iraultzaile batek atera duela.

Caritasek betidanik esan duena errepikatzen du: pobreen kopurua zein den, pobreziaren ezaugarriak zeintzuk diren, zer egin daitekeen pobreziari aurre egiteko, nola eman diezaiekegun duintasun apur bat pobreenei... Baina noski, egunez egun geroz eta murrizketa gehiago baldin badaude, eta behar gorrian dagoen jendeak murrizketak pairatzen jarraitzen baldin badu, Caritasen zenbakiak ez dira boterearen gustuko izanen. Nola iritsi gara egungo egoerara? Nola pasatu gara 4 milioi pobre izatetik 8-10 milioi pobre izatera? Tristea da Caritas iraultzailetzat jotzea neguan etxeetan elektrizitatea ez mozteko eskatzeagatik. Gure gizartean bertan oso ongi bizi diren hiritarrak daude, hilero 2.000-3.000 euro poltsikoratzen dituztenak, eta gogaikarria egiten zaie ikastetxera doazen haurren %25 gosaldu gabe doala jakitea. Diskurtso ofiziala hausten duten berrien arduradunak errudun bilakatzen dira.

Etorkinak beharrezkoak dira gure bizitza-kalitateari eusteko?

Nork zaindu behar ditu gure aiton-amonak? Nork garbitu behar ditu gure etxeak? Etxeko lanetan diharduten Latinoamerikako emakume asko oso gaizki pasatzen ari dira. Modu lotsagarrian esplotatzen dituzte. Komunikabideetan, berriz, “Neskame batek atso baten bitxiak lapurtu ditu” bezalako titulartrak agertzen dira, eta amaierarik gabeko lanorduak, jasan behar dituzten irainak, soldata irrigarriak isiltzen dituzte. Hemen kasu asko hartu izan ditugu. Eta burua makurtu beharrean izaten dira euren sorterrian seme-alabak utzi dituztelako, aiton-amonen edo senideen esku, eta aitak bere egin-kizunei muzin egin dielako. Emakumeen artean egoera oso larria da, gizonena baino gaitzagoa, eta inork ez dio horri erreparatzen. ■

NAVARRA.ES

“Iñigo Allí kontseilariak iruzurra zegoela esan zuen. Ondorengo ikerketek %0,7ko iruzur eskasa erakutsi zuten”. Irudian, Nafarroako Gobernuko Politika Sozialen kontseilaria bere departamenduaren aurrekontuen inguruko prentsaurreko batean.

tradebi
EB Traducciones Itzulpenak, S. L.
www.tradebi.com

UTTA VON GLEICH

Nola konbentzitu gurasoak eskolako hizkuntzak kitxua behar duela izan

Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak gonbidaturik, Gasteizen izan zen iragan urriaren hondarrean Utta von Gleich hizkuntzalari alemana *Kultura arteko hezkuntza elebiduna Perun eta Bolivian* mintegian. Von Gleich doktorea anitz urtez aritu da hizkuntza-kooperazioari loturiko gaiak ikertzen, eta kitxua-gaztelania eskolatze elebidunari dagozkionak berebat.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

IRAGAN MENDEKO 70eko hamarraldian, pobreziaren kontrako borrokaren barne, hezkuntza egitasmoak aitzinatzen hasi zen Alemaniako Gobernua. Xedea, indigenen heziketa maila goititzea, haien hizkuntzak hezkuntzaraino eramanez. Pobreziaren kontrako kooperazio egitasmoek hizkuntza kooperazioa aintzatetsi eta lekuan lekuko hizkuntza indigenen egoera ontzat harturik gauzatzen hasi ziren, Munduko Bankuaren eta Munduko Banku Iberoamerikarraren funtsek lagundurik.

"Hezkuntzan, kultura artekoaren erronka, espainol hiztun elebakarrek gainerako kulturak ezagutzea zen".

Zein da Europako eta Peru, Bolivia eta gainerateko herrialdeen arteko kooperazioaren historia? Deigarri da hizkuntza indigenak ere kontuan hartzea.

Alemaniaren eta Latinoamerikaren arteko kooperazioak aldebiko hitzarmenak ditu oinarri. 60ko hamarkadan hasi zen gisako kolaborazioa, Ekonomiaren Garapenerako Latinoamerikako Kontseiluaren bidez. Ez zen, beraz, hizkuntzaren gaineko kezkarik. Halarik ere, berehala jabetu ziren populazioaren zati handi bat bazterturik bizi zela Latinoamerikako herrialde guziz gehienetan. Horra, froga, Munduko Bankuaren azterketa, arras erakusten baitzuen indiar izateak pobre izatea eta hizkuntza galtzea erran nahi duela. Nazioarteko erakunde hau kritika latzak jasoa zen, aberatsentzako klub kapitalista hutsa zela eta hau eta hura egotzi zioten, baina garai hartan soziologo eta politologo talde bat eratu zuten, zenbait azterketa egiteko asmoz. Munduko Bankuaren eta Banku Iberoamerikarraren politika prestatzeko balio izan zuen.

Europan, hain zuzen, sasoi hartan Alemaniak zuen lidergoa. 70eko hamarkadan, pobrezia eta populazio indigenen bazterketaren kontra egiteko giroa sortu zen. Horixe zen leloa ere: "Pobreziaren kontra". Eta zein da pobreziaren kontrako antidotoa? "Hezkuntza!", erran izan da oraindaino. Jakina, berehala dator ondoko galdera: "Nolako hezkuntza?".

Eta nolakoa zen ordu arteko hezkuntza Latinoamerikako herrialdeetan?

Ordu arte, gaztelania hutsez egiten zuten. Eta eskola uzten zuten, edo errepikatzen zuten ikasleen tasa, alimalekoa zen. Ez nago kopuruak azaltzeko moduan, baina, garai hartan, haur batek, Andeetan, hirugarren maila arte egingo zuen eskolan, eta bitartean, hiru aldiz errepikatuko zuen: zazpi-zortzi urte emanen zituen eskolan, eta handik irtetean, ez zuen jakinen leitzen ez izkiriatzen. Horixe zen egoera, eta huraxe hobetzea zen gure nahia. Gogoan ditut eztabaida teorikoak, eta egin ohi zen lehenbiziko galdera hura: "Haurrak espainolez konprenitzen ez duelarik, zer egin?". "Bere ama-hizkuntzan erakutsi!". Baina talde indigenak gutiengo sozial dira Latinoamerikan, ez dute botorik ez bozik parlamentuetan. Bazterkeriatik irteteko, gaztelania ikasi nahi dute! 70eko hamarkadan, horixe izan zen gure lehenbiziko egitekoa: "Haurrak lehenbizi bere ama-hizkuntzan ongi ikasten badu, errazago ikasiko du, gero, bigarren hizkuntzan. Garatuagoak izanen ditu hala alderdi kognitiboa nola emozionala". Horixe izan zen Lehen Hezkuntza elebidunaren abiapuntua, eskola publikoan betiere.

Gutiengo indigenak, erran duzunez, gaztelaniaz ikasteko porrokatzen omen dira. Zuek, aldiz, kitxuaz irakatsi nahi diezue hasmentan.

Bide mingarria izan da. Laborariak, hasteko, erranen dizu gaztelaniaz ikas dezan igorri duela semea eskolara, kitxuaz badakielako lehendik ere. Gure eginkizuna da, bertzalde, gurasoei zuzen esplikatzea bi hizkuntza ikasi ezinik ez dela; erran nahi baita, aldi berean ikasi bi hizkuntzak. Nolanahi ere den, gure lana ez zen aski izan, eta kitxuaz ikasteko eskaintza egin ohi zen. Bertzalde, kanpotik zetorren zernahi proiektuk izugarri lagundu zuen eskolaren kalitatea hobetzen,

> **"Gogoan ditut eztabaida teorikoak, eta egin ohi zen lehenbiziko galdera: 'Haurrak espainolez konprenitzen ez duelarik, zer egin?'. 'Ama-hizkuntzan erakutsi!'. Baina, bazterkeriatik irteteko, gaztelania ikasi nahi dute!"**

eta horrek gurasoek jarrera aldatzea eragin zuen, erraten baitzuten: "Hezkuntza elebiduna bada ere, ontzat emanen dugu, baina eskolak maila ona duelako, ez bertze deusengatik!". Edo, menturaz, bazkaria ere ematen ahal zen erran delako eskolan! Nazioarteko zernahi proiektu ere erakargarri zitzaion laborariari, oro har, salbu eta talde ttipi bati; fundamentalistak, errateko maneran: "Hemen ditugu behin, bitan eta hiruretan, misiolariak beti, gu antzaldatu nahirik, gizartearen gehiengoan integra gaitezen, gure kultura errespetatzeko asmorik ez deusik gabe!". Horrela erraten zuten, guti goiti-beheiti. Eta oroit naiz "kultura" solasa ematen zutela, ez "hizkuntza". Hezkuntza elebitan egiteko proiektuak aitzinatzen hasi ziren 70eko eta 80ko hamarkadetan, dela Perun, Bolivian edo Ekuadorren.

Zein ziren proiektuen ezaugarriak?

Batzuk trantsiziozko proiektuak ziren, ez zuten hiru urte bertzerik irauten. Handik goiti, gaztelaniaz hasten ziren ikasten. Nik "tranpolin proiektuak" deitzen ahal ditut, hizkuntza batean ari baitira lanean, baina bertze batean ikasteko esperoan. Ez dute emaitza onik eman, ez ama-hizkuntzan, ez bigarrenean ere. Erran nahi baita, haurrak laubost urte egiten baditu lehen hezkuntzako ikastetxe batean –ikasle pobrez osatutako batean guziz gehienetan–, eta lau horietarik bi geroan presentziarik izanen ez duen hizkuntza bat –amaren hizkuntza–, lantzen ematen baduzu, eta ondoren, bertze bi egiten badituzu espainola irakasten… bada, emaitzak ez dira onak, ez hizkuntza batean, ez bertzean. Horrek, zerutik jakina da, gogoeta ekarri zuen: "Zerbait aldatu behar dugu!". Eta "zerbait" hori Kanadako eskola elebidunetatik heldu zen: lehen hezkuntza, osorik, ama-hizkuntzan egitea asmatu genuen, bi hizkuntzen estatusak berdintzeko.

Zer duzu "bi hizkuntzen estatusak berdintzea"?

Biek sarrera berdina izatea irakaskuntzan, erdia kitxua, erdia gaztelania. Hori zen gogoeta: eskubide berdinak behar zituzten bi hizkuntzek. Baina hori ere ez da aski, bistan denez. Bi edalontzi dituzularik, bata kasik guziz beterik, eta bertzea, aldiz, erdi hutsik, ezin zintezke berdin aritu. Gaztelania bigarren hizkuntzatzat irakasteak ez zuen emaitza onik… 80ko hamarkada arte, bertzalde, ez zen afera

Babeslea: EMUN

emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA
HIZKUNTZA ZERBITZUAK
KULTURA ZERBITZUAK
ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO ZERBITZUAK
PARTE HARTZE ZERBITZUAK
ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO
www.emun.eus

Itziar Idiazabal Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren koordinatzailea Utta von Gliech hizkuntzalari alemaniarrarekin.

horren inguruko kezkarik. Irakasleak ere ez ziren behar bezain ongi prestatuak, segur! Gaztelania irakasten hasi eta erraten ahal zuten: "Tira, haurra aski poliki moldatzen da!". Ondoren, metodo aspergarri bati lotu zitzaizkion, espainolaren gramatika eta bertze irakasten. Hortik ere ez zen onik heldu. Nolanahi ere den, 1986an berean kultura arteko hezkuntza elebidunari buruzko sinposio latinoamerikarrak egiten hasi ginen. Alemaniatik bultzatu genuen bilkura hura: aste bat hartu genuen, osorik, gogoeta egiteko. Gure lana hobetzeko bideak aztertzen hasi ginen, galdezka geure buruari: "Zer behar dugu? Gurasoak konbentzitu, amahizkuntza atxiki dezaten? Aldi berean, elebitasun egonkor bat soluzioa izan zitekeela esplikatu, "kitxua ala gaztelania" hautatu beharrik gabe?"…

Zein izatu zen erantzuna?

Hobetzea lortu genuen, zalantzarik gabe. Trantsiziozko hezkuntza hura baztertu eta mantentzeari buruz solasten hasi ginen, hau da, xedea zen ama-hizkuntza mantentzea, gehi gaztelania bigarren hizkuntzatzat ikastea. Gogoeta hartan bertako irakasleek, akademikoek eta populazio osoaren hezkuntza egoera hobetzeko presioa sentitzen zuten ministerioetako kideek esku hartu zuten.

"Kultura arteko hezkuntza elebiduna" diozu zuk behin, bitan eta hiruretan. Zerendako hori?

80ko hamarkadaren hasmentan, Perun, "hezkuntza elebidun bikulturala" erraten ohi zen. Baina "bikultural" solas horrek ez zuen arrakasta onik izan. Are okerrago, kalapita iturri izatu zen: kulturak banatzen zituen, bietan hazia zen haurra ez zen bitasun horretaz jabetzen, ez zituen bereizten ere. Bertzalde, kolonialismoaren ideologia zaharra ere indarrean zen: kultur zapalkuntza, hizkuntza zapalkuntza, ekonomi dependentzia… eta anitzek ez zuen begi onez ikusten hizkuntz eta kultur gutiengoak prestatzea, gizarte menderatzailearen baitan sartzeko. Hori ez da berdintasunaren bidea, ezta? Demokratikoa ez, inondik ere. Horrela, 80ko hamarkada fini baino lehen, "kultura arteko hezkuntza elebiduna" asmatu zen eta, ordurako ez ginen populazio indigenari buruz bakarrik ari, gizarte edo estatu bateko kide guziei buruz baizik. "Kultura arteko" solasa, finean, Venezuelako soziologo batek asmatu zuen, ordurako gisako esperientziak aitzinatzen ari baitziren herrialde hartan. Nola jokatu gutiengo linguistiko kulturalekin? Programa bereziak asmatu, edo ohiko eskolatzearen bidetik jo? Kultura artekoaren erronka zen, beraz, espainol hiztun elebakarrek gainerako kulturak ezagut zitzaten halako herrialde jakin batean.

Kultura artekoa

"Eguneroko bizian, kultura artekoak erran nahi du interesa izatea, bertzea nola bizi den, zein iritzi duen, zer jaten duen, nola janzten den… jakiteko interesa, eta horrez gainera, diferentzia onartzea. Hizkuntzari dagokionean, ikasleak motibatzen saiatu dira, unibertsitateko jangeletan kitxuaz solastu daitezen. Ikerketa bat ere egina dute, eta kitxuaz noiz solasten diren galdeturik, haien erantzuna da: 'Konfiantza dagoenean!'. Lagunak lagunari, bai. Baina unibertsitatean eskolarik kitxuaz ez dago. Garai batean bazen kitxuazko literatura eta linguistika departamendu bat, baina kendu zuten, Sendero Luminoso eta gero, menturaz. Garbiketa egiteko, omen. Hura kendu, eta Enpresa administrazioa jarri zuten, guziz 'garrantzizko' gauza baita, kiosko bat zuzendu nahi izanez gero!"

Kulturak ezagutzea zen helburua.

Ezagutu, museoan ere ezagutzen zituzten, baina hizkuntza indigenak errespetatzea ere helburuen artean zen. "Hizkuntza? Ez, dialektoa da!", erraten zuten. 70eko hamarraldiko eztabaida duzu, oraino irauten duena zenbait girotan. 1992tik hona, bertzalde, indigenen mugimendua indartsu dator horri kontra egiten. Latinoamerikaren "aurkikuntza" ospatzeari ekin ziotelarik, jendea ez zen pozik: nahiago du, anitzez, "kulturen arteko topaketa" baliatu, espainolen, edo "europarren" –espainolak ez sobera mintzearren–, eta indigenen arteko topaketaz jarduteko. Errateko, "espainol" solasak ez zuen konnotazio onik kasik guti arte, baina Peruko belaunaldi gazteek ongi ikusten dute Espainia. Haien irudiko, konnotazio txarrik ez du, ez baitakite historia ere, eta ondorioz, ez dute gisako arazorik. Kar, kar… ■

SDB

SORTUKO DIRA BESTEAK 2014

MIKEL URDANGARIN PETTI
OLATZ PRAT ESTITXU PINATXO
ALEX SARDUI MIXEL DUCAU
KIRMEN URIBE JOHN BERKHOUT

AZAROAK 30 BILBO
ARRIAGA ANTZOKIA-19:00etan

argia Leihatilan iragarki hau erakutsi eta %20ko beherapena egingo zaizu

Antolatzailea: TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

Laguntzaileak: argia anoa BIZKAIA

Sarrerak:
- Lehiatila / takila
- Telf.: 946 850 850
- www.teatroarriaga.com
- www.sarrerakkutxabank.es

TERMOMETROA

AMIANTOAREN AUZIA ITALIAN

«Lotsagarria da!»

Amiantoarekin aberastu zen enpresariaren kontrako zigor historikoa baliogabetu du Erromako kasazio-auzitegiak

| URKO APAOLAZA AVILA |

SMT

STEPHAN SCHMIDHEINY enpresari milioidunari ezarritako kartzela zigorra eta biktimentzako kalte-ordainak baliogabetu ditu auzitegiak, delituak preskribitu egin duela esanez.

Minbizia sortzen zuela jakinda ere, Eternit enpresak erruz produzitu zuen amiantoa, eta bere jabe Schmidheiny suitzarra horri esker aberastu zen kontzienteki. Munduko Osasun Erakundearen arabera 125 milioi lagunek egin dute lan edo bizi izan dira amiantoaren arriskupean eta urtean 100.000 inguru hiltzen dira. Horietako milaka batzuk Italiako Casale Monferrato komuna txikikoak dira. Bertako biktimen salaketa urrun iritsi da: Turingo auzitegiak 18 urtera zigortu zuen handikia.

Baina inoiz lan-osasun eta ingurumen delituengatik izan den auzibide handienak boterearen horma topatu zuen parez pare hilaren 19an: "Hau lotsagarria da!" oihukatu zuten auzitegiko salan zeuden biktimek; ez zen espero halako erabakirik.

Boterea hariak mugitzen

Amiantoaren gaian aditua den Jexux Uzkudun epaiketan izan da. Bere esanetan susmoak daude botereindarrek aldez aurretik hariak mugitu dituztela epaian eragiteko: "Horren erakusle da Italiako Estatuak berak –fiskalaren bidez– zigorra bertan behera uzteko eskatu izana".

Biktimen abokatuek nahi dute borondatezko homizidiogatik bederen zigortzea Schmidheiny. Baina auzia berriz hasi beharko litzateke eta azken 15 urteak besterik ez lituzke hartuko. Hori baino lehenago hildakoek, jada ez dute justiziarik izango. ■

elhuyar APP GUNEA

ELHUYARREN **APP** BERRIAK
DURANGOKO AZOKAN

Elhuyar hiztegi elebidun guztiak, orain APP bakarrean!

Bisitatu **Elhuyar**ren stand-a
(Artekale 55-56),
MUGIKORRERA ETA TABLETARA
deskargak egiten
lagunduko dizugu

elh hiztegiak

ONLINE / OFFLINE

Hitzmix ZIFREN SALTSA · Hitzmix LETREN SALTSA · Hitzmix HITZ-PASA · Hitzmix GURUTZATUAK · Hitzmix BORTZ

HITZMIX JOLASAK

adi!

Aurten ere, RENOVE PLANA izango duzu. Ekarri zure euskara-gaztelania hiztegi zaharra eta % 30eko deskontua zure hiztegi berria erosterakoan

TERMOMETROA • EUSKARA ALBISTEAK | ONINTZA IRURETA AZKUNE |

24 orduz euskaraz Hernaniko kaxkoan

ABENDUAREN 2RAKO egin dute deialdia herriko hainbat eragilek. Euskaraz ederki asko egiten dutenei, erdipurdi dabiltzanei eta ulertu baino egiten ez dutenei, norberak bere alea jar dezan eskatuko diete. Egun arrunt batekiko alderik izango den ere neurtuko dute.

Abenduaren 3a Nazioarteko Euskararen Eguna dela aitzakia hartuta, azaroaren 29an hasi eta abenduaren 3a arteko ekitaldiak antolatu dituzte Hernanin. *Euskara ari du Hernanin* lelopean, hizkuntzaren erabilera bultzatzeko asmoz, hainbat eragile bildu dira antolaketa lanetan: AEK, udal euskaltegiak, herriko ikastetxe guztiak, Dobera euskara elkartea, Banaiz Bagara, Berriaren lagunak eta Udala.

Antolatzaileek Kaxko auzo elkarteari eta Berriak Merkatari eta Ostalarien Elkarteari azaldu diete abenduaren 2ko asmoa eta haien laguntza eskatu. Harrera ona izan dute. 150 merkatari eta tabernarirekin banaka-banaka hitz egin dute euskara bultzatzeko prestatu duten ekitaldiaz. Herritarrei zein merkatariei gauza bera eskatuko zaie: norbanakoak bere neurrian euskaraz aritzeko ahalegina egitea. Honako egoerak planteatu dituzte: euskaraz primeran daki baina gaztelaniarako joera du; bada, euskaldunak eutsi diezaiola euskarari. Beste batzuetan euskaldunak ez du pazientziarik erdipurdi euskaraz ari denaren aurrean; abenduaren 2an, Hernaniko kaleetan, euskara ikasten ari dena anima dezala euskaraz jarraitzera. Euskaraz egiten ez duenak berriz, lagunari edo dendariari esan diezaioke ulertzeko gai dela eta mesedez euskaraz egiteko. Kalean, poteoan, dendan, jolasean… Hernaniko kaxkoan horretan saiatuko dira abenduaren 2an.

Boluntario talde batek hizkuntza erabilera horien neurketak egingo ditu eta bost eguneko ekintza sortaren bukaeran emaitzak jakinaraziko dituzte.

Urtarrilean 1.go zenbakia

"ALEA", ASTEKARIA IZANGO DA eta Araba osoan banatuko da. 32 orrialde koloretan izango ditu. Egitasmoa Geu Gasteiz Euskalduna elkarteak, Goienak eta Berriak jarri dute abian. Bi helburu ditu proiektuak: euskararen erabilera eta presentzia areagotzea eta euskarazko informazioaren bitartez lurraldea kohesionatzea.

0 zenbakia aurkezteko, azaroaren 29an jaia antolatu dute Oihaneder Euskararen Etxean. Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, Gasteizko hamaika gunetan eskutik eskura banatuko dute 0 zenbakia. Urtarrilean argitaratuko da 1. go zenbakia. Harpidetza urtean 50 euro izango da.

TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

Merkatarien Europa

EUROPAR BATASUNA (EB) ez da herritarren eta herrien Europa, merkatarien Europa baizik, kapitalarena eta multinazionalena. Eta EB politikoki gidatzen dutenak euren esklabuak dira, lekaioak. Ez da lehen aldia tesi hau baieztatzen duten gertaerak ematen direla. Orain, beste eskandalu bat ezagutarazi da, izebergaren punta izan daitekeena: 340 finantza eta multinazional talde handik (Citigroup, JP Morgan, Volkswagen, Ikea, Pepsi, Vodafone, Apple...) akordio sekretuak dituzte sinatuta Luxenburgorekin, zergak saihesteko. Jean-Claude Juncker EBko presidentea, Luxenburgoko lehen ministro izan zen, eskandalu honek eztanda egin duen herrialdeko mandatari, alegia.

Korporazio horiek lortutako eskugain fiskalak milioi asko balio du, sinadura batzuek euren etekinen %1etik beherako zergak ordaintzen baitituzte Luxenburgon. Etekinen gaineko zergak ez dituzte zerbitzuak eta produktuak saltzen dituzten herrialdeetan ordaintzen, hau da, ez dituzte %30 inguruko zergak ordaintzen, eta herrialde horien (Frantziako eta Espainiako estatuak tartean, Euskal Herria barne) zerga-galera nabarmena da. Gobernuen murrizketa sozialak bezain nabarmena. EBko gainerako enpresek eta herritarrek aldiz, %25 eta %50eko zergak ordaindu behar izaten dituzte, hurrenez hurren.

Europako herriek eta herritarrek EBko gobernuak presionatu behar dituzte, gehiegikeria eta eskandalu horiek ahalbidetzen dituzten politikak errotik aldatzeko eta paradisu fiskalak ezabatzeko. Ez da erraza izango, europar politikak diseinatzen, kontrolatzen eta zuzentzen dituztenak finantza eta industria mandatari horiek baitira, herritarrek aukeratu ez badituzte ere. Herrien eta herritarren Europak aurrez aurre borrokatu beharko luke merkatarien Europaren kontra, multinazionalen eta kapitalaren kontra.

Juan Mari Arregi

argia

Harpidetza bakoitzarekin, are independenteago

Jarri ekonomikoki zure tanta etorkizuna margotzen jarrai dezagun

Garrantzitsua denaz informatuta egoteko, ikuspegi kritikoarekin

Argiaren proiektu komunikatiboa babesteko eta bultzatzeko

Argiaren balioetan sakontzeko

Mahai gainean jarri nahi dituzun eztabaidak jendarteratzeko

Zuretzat garrantzitsua dena denentzat garrantzitsua izateko

ARGIA astero jasotzeko aukera: **hilean 12 €** baino ez!*
ARGIA hilean behin jasotzeko aukera: **hilean 4 €** baino gutxiago!**

Egizu, egiozu harpidetza!

Eskaerak:

✆ 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

Durangoko Azokan ere topatuko gaituzu (Goienkale 71)

(*) 145 euro urtean. Igorpenetan ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera (46 zenbaki + 11 Larrun + Urtekaria). (**) 41 euro urtean (11 zenbaki + 11 Larrun + Urtekaria).

2393.etik ikusita, nola ez genuen eragotzi klimaren zoratzea

Nola interpretatuko ote da 2393. urtean gaur hemen bizi dugun XXI. mende hau? *The Collapse of Western Civilization* fikzio-zientziazko liburuan Naomi Oreskes eta Erik Conway historialariek kontatu dute nola gertatu zen –nola gertatzen ari den?– Mendebaldeko kontsumo zibilizazioa hondamendira eraman zuen kolapsoa.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

Irudi txikian erreportajean aipatzen den liburua, Naomi Oreskes eta Erik Conwayk plazaratu berria. Handia World Resources Institute erakundeak erakusten du bere webgunearen azalean: tifoiak eraginiko uholdeak itotako hiri handi batean herritar batek bere alaba eta etxetik ateratako hainbat ondasun daramatza sasi-txalupan jarrita. Historiagileok salatzen dute zientzialariek epelegi jokatzen dutela jadanik frogatutzat eman daitekeen klimaren zoratzearen aurrean: "Arrazoi mordoa daukagu esateko klimaren aldaketarekin lotuta daudela urakanak eta mundua berotzen ari dela, urakanok gero eta ugariagoak eta bortitzagoak izango direla. Baina zientzialarien komunitateak uzkur jokatzen du, aski ebidentzia ez omen daukalakoan, %95eko konfiantza behar omen dute. (...) Beren buruak huts egiteko arriskutik babestuz, gu uzten gaituzte ezer ez egitea den errore handiagoaren aurrean".

BARRUAN MEZUA DARAMAN BOTILA basamortuan galduta, horra doi-doi 100 orritan mezu kezkagarria zabaltzen duen liburuaren azala: *The Collapse of Western Civilization: A View from the Future* (Mendebaldeko Zibilizazioaren kolapsoa, etorkizunetik ikusita). Harvard eta Kaliforniako unibertsitateetan historia irakasten duten Naomi Oreskes eta Erik Conwayk plazaratu berri dute. 2010ean argitaratu zuten *Merchants of Doubt: How A Handful of Scientists Obscured the Truth on Issues from Tobacco Smoke to Global Warming* (Zalantza saltzaileak: Nola zientzialari batzuek lortu zuten egia iluntzea tabakoaren kalteetatik hasita beroketa globaleraino).

Oraingo liburuan jarri dira 2393. urtean bizi den historialari baten larruazalean. Txinako Bigarren Herri Errepublikan bizi da, eta puntu honekin hasieratik markatzen dute beren hipotesiaren ezaugarrietako bat: beste ezein herrialdek baino aukera handiagoz Txinak iraun lezakeela XXI. mendean planetari egokituko zaizkion kalamitateen artetik pasa ostean.

Etorkizunetik begiratuta –fikzioa delako ez bedi gehiegi lasaitu irakurlea– 2023. urtean nozitu zuen Lurrak sekulako astinaldia, "urte osoan uda" izan baitzen. Idazkian diotenez, "500.000 pertsona hil zituen beroaldi handi hark, 500.000 milioi dolarreko kalteak eragin sute, uzta galtze eta azienden eta etxeko animalien hiltzearekin. Etxeetako katu eta zakurren galerak [jakien urritasunagatik, antza] bereziki asaldatu zituen Mendebalde aberatseko jendeak, baina 2023an berezia gertatu zen egoera hura geroztik normaltasun berria bilakatu zen".

Geroztik, XXI. osoan zehar mamitu zen, inork hori saihestea lortu gaberik, zientzialariek eta beste askok aurretik iragarritako hondamendia: Afrika eta Ozeaniako populazio osoak desagertu ziren, klimaren aldaketak ekarri zituen mundu osoan zehar idorteak, janaririk eza, itsasoa lehorrean sartzea, liskarrak, gerra zibilak, 1.000 milioi jende baino gehiagoren migrazioa eta lege martzialak erabiltzen zituzten sistema politikoen nagusitzea.

Fikzio-zientziazkoa den arren, liburuan 2013a baino lehenagokoaz idatzitako guztia da benetan gertatua. 2013tik aurrera asmatu dutena, diote historialariek, idatzi dute oinarrituta dagoenekoz frogatuta dagoen ebidentzia zientifikoan. Urakanak gero eta bortitzagoak izango direla jadanik badakigu. Itsas maila igotzeaz eta Artikoaren mendebaldeko izotz geruza galtzeaz froga zientifiko oso sendoak dauzkagu jadanik. Klimaren berotzeak lehorteak eta janarien urritzea dakartzala dakigun moduan.

"Mendebaldeko zibilizazioko jendeak –dio 2393ko ustezko historialariak– bazekien zer ari zen gertatzen baina ez zen gai izan hura gelditzeko. Gertakizun haietan nabarmenena da hain zuzen zenbat informazio zeukan jende hark eta zer nolako ezintasuna zeukaten zekitena ekintza bihurtzeko. Ezagutza ez zen bilakatu ahalmen".

Erregimen bortitzen aroa

Ingurumen aferez ari den *Living on Earth* (Lurrean Bizi) gunean elkarrizketatu dute bi idazleetatik Naomi Oreskes. Kazetariari azaldu dionez, bera bezala Erik Conway kezkatuta daude "jendea ez delako ohartzen klimaren aldaketak dakarrenaz, askok uste dute Artikoko hartz zurien kontua dela. Guk azaldu nahi diegu gu guztioi eragiten digula, gure bizimoduari baina baita gure instituzioei ere, erakunde ekonomiko, politiko eta sozialei".

Aurreko *Merchants of Doubt* liburuan, historialariok azaldua zuten nola korporazioek antolatu duten klimaren aldaketari buruzko zalantzak zabaltzeko borroka, beldur zirelako egia zientifikoak auzitan jarri zitzakeela demokrazia liberala, enpresa librea, eta beste. Oraingoan nabarmendu nahi dute historiaren

ironia, nola egia ukatzearen poderioz munduan eragin zuten kataklismoak ekarri zuen kapitalismo liberalaren suntsiketa.

Txina aipatzen dute XXI. mende gatazkatsua ondoen gainditu zuen herrialdetzat, bi arrazoirengatik. Batetik, historiarik luzeena daukan herrialdea baldin bada, bizirauteko probabilitate estatistiko handienak berak dauzka. Bestetik, aitortuz Txina urteotan aritu dela beste inor baino astoago ingurumenaren erabileran, Txinako sistemak erakutsi du ahalmena daukala justu kontrako norabidean ere jauzi handiak egiteko, diziplina eta antolaketa handiz.

Txina ez bezala, paradoxa iruditu arren, XXI. mendean pikutara joan ziren Mendebaldeko zibilizazioak gozatu zituen askatasun indibidualak, klimaren aldaketak eragindako larrialdiaren eraginez: "Ororen gainetik norbanakoaren askatasuna bermatu behar omen zuen neoliberalismoak ekarritako egoera latz hark berak eragin zuen gobernuen esku hartze izugarri handia".

Baina zergatik ez ziren Mendebaldeko jendarteak gai izan XXI.ean egin beharreko trantsizioa burutzeko? Alde batetik, diote Oreskes eta Conwayk, *merkatuko fundamentalismoa* deitu dutenagatik: "Klimaren aldaketa benetan gertatzen ari dela ukatzen dutenetako askok halako fede batez sinesten dute merkatuak egingo duela zerbait magiazkoa bezala eta arazo hau konponduko duela merkatuaren esku ikusezinak mirakuluz bezala, pieza bakoitza bere lekura eramanez mirarizko soluzio bat aurkituko duela. (...) Aldiz, Munduko Bankuaren ekonomialari buru izandako Nick Sternek aitortua du klimaren aldaketa dela sekula ikusi den merkatuaren huts egite [*market failure*] handiena".

300 urte beranduagoko begietatik hau guztia gertatu zen XXI. mendean boterea zegoelako erregai fosiletatik aberasten ziren indarren eskuetan, historialariok "*the carbon combustion complex*" deitu duten indar multzoak bahituta. Sare horrek biltzen zituen erregai fosilen ekoizleak, erregaiok merkaturatzen zituzten konpaniak (petrolioa ateratzen dutenak, horientzako ari diren eraikuntzako eta bestelako korporazioak, petrokimikakoak...), erregai fosil merkeetan oinarritutako industriak (automobilak eta hegazkingintza), gehi guztien kapital beharrak asetzen zituzten bankuak.

XXI. mendeko hondamendi klimatikoaren beste erantzule nagusiak, Oreskes eta Conwayrentzako, zientzialariak izan ziren. Bakoitza bere gai hiper-berezituan murgildurik, ikuspegi orokor bat edukitzeko miopeegi, edozein ondoriotara iristeko %95eko segurtasuna edukitzeko behar horrekin... "Zientzialariek oso-oso beldurti jokatu dute 'otsoa datorrela!' oihukatzeko orduan eta ondorioa izan da denok egon garela bibolina jotzen Erroma kiskaltzen ari zen bitartean, edo zehazkiago esanda, Groenlandia urtzen zen bitartean". ■

ZINKUNEGI
OPTIKA
Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

Zerbitzua
Kalitatea
Garantia

Xabier Letona

DANI BLANCO

Aldaketa: lau alderdiko gobernua Nafarroan

NAFARROAN ez dira hauteskundeak aurreratu, baina joan den asteko *navarrometro*ak datorren Foru Legebiltzarrerako emandako emaitzek (Podemos 18 eserleku, EH Bildu 11, UPN 8, PSN 5, Geroa Bai 4, Ezkerra 2, PP 1 eta UPyD 1) gutxitan moduan aztoratu dute panorama politiko-mediatikoa. Angelu gehienetatik egindako irakurketa nagusia zera izan da: ez dira sinesgarriak, baina aldaketarako joera oso argia adierazten dute hauteskundeetarako. Inkestak aspertzeraino izango direnez datozen sei hilabeteetan, joera horiek joango dira zehazten apurka.

Eta hauteskundeen biharamunean moduan, emaitzen ostean balizko akordioetarako unea dator. Inkestaren muturrera joz, UPNk hauteskundeak berak irabaziko dituela adierazi du. Norekin egingo lukeen akordiorik ez, baina esan beharrik ere ez.

Begirada guztiak Podemosen jarri dira eta haien bozeramaile Joan Boschek bere iritzia eman du, berak Geroa Bai eta Ezkerrarekin egingo luke akordioa, baina Bildurekin egin nahi izango dutenak ere izango direla aitortu du. Eta Bildu urrutitik ikusi nahi ez dutenak ere izango dira haserrearen alderdian. EH Bilduko Adolfo Araizek argi adierazi du, prest daude Podemosekin biltzeko. Asko du EH Bilduk irabazteko aliantza horretatik, baina Podemosek ere bai, behintzat herritarrei eta beren programa eta ideiei begira. Berriz ere, baina, Espainiako beren batzar osoak erabakiko du ahal den ala ez. Eta gaurkoz Bildurekiko erantzuna Espainian ezetza da. Aldaketatik begiratuta, berau eskatzen duten lau alderdien gobernua litzateke logikoena eta eraginkorrena: Podemos, EH Bildu, Geroa Bai eta Ezkerra. Gaitza? Bai, baina kalean azken lau urteetan behin eta berriz elkartu diren boto emaileen borondateari lotuz gero, ez luke hain zaila behar.

Desagertutako izarra bailitzan, *navarrometroa* itzaliko da apurka, baina bere argi izpiak 2015eko maiatzaren amaieraraino luzatuko dira dagoeneko, besteak beste UPNko hautagaiaren sei hilabeteko gurutze-bideari argi eginez. Eta nor ote berau? José Javier Esparza sailburua, Juan Ramón Rábade Tuterako Ospitaleko zuzendaria edo Amelia Salanueva senataria? Hilaren 29an erabakiko du UPNko Kontseilu politikoak. Barcinaren dimisioarekin –barka manipulazio txikia– eta *navarrometro*arekin Nafarroako eskuina hasi da botorako tronpeta jotzen. Pentsa baino gehiago estutuko dute lehia, baina denak adierazten duenez, oraingoan galtzeko.

> *Joan Boschek bere iritzia eman du, Geroa Bai eta Ezkerrarekin egingo luke akordioa*

JOSEP FONTANA irakurtzea plazer da beti, ikasgaia bata bestearen atzean. Zorroztasuna eta zuhurtzia darion historialariari Katalunia independenterik nahi duen galdetu dio kazetariak elkarrizketan: "Bai horixe. Baina jabetzen naiz zailtasunez. Arrazoi askorengatik, ez zait iruditzen epe motzean lor daitekeen helburua denik. Indarrez irabazi behar bada, Kataluniak ez du armadarik. Eta zail ikusten dut beste era batera –negoziazioz– irabazteko aukera, batzuk zein besteak ez baitaude amore ematekotan eta nazioarteko testuingurua ere ez da aldekoa. Badakit ez naizela berau ikusteko biziko".

Suhiltzaile lanetan dabil Fontana, A9aren ostean baretzen ez den Kataluniako sutean. Eta zer egingo du Masek azkenean? Lortuko du ERC hauteskunde zerrenda bateratura eramatea? Oriol Junquerasen alderdiak ezetz esan zuen joan den astean, baina argi dago oraindik ez direla ateak itxi, are gutxiago A9an Masen irudiak aparrak moduan gora egin ondoren. Eta are gutxiago soberanismoak Masen aurkako kereila Kataluniako herriaren aurkako eraso gisa hartu duenean. A9aren aurreko asteetan bezala, orain ere azken uneak erabakiko du Masen proposamena. Eta ERCrena. Gero eta garbiago dago, hala ere, martxoa amaitu aurretik egingo direla hauteskundeak. Hori inork gutxik jartzen du zalantzan. *El Periódico*k iragan asteburuan ezagutzera emandako inkestaren arabera, elkarrekin baino (58 eta 60 artean) banatuta eserleku gehiago lortuko lituzkete (63 eta 67 artean).

Masek independentziaren aldeko hautua egina ei du datorren legealdirako, beti ere, *La Vanguardia*ko kronista politikoa den Isabel Garcia Paganen berbak aintzat hartzekotan. Honen esanetan, batera edo banatuak joanda, bi indar hauek gehiengo osoa lortuz gero, Masek bi helburu izango lituzke datorren legealdirako: edo Espainiarekin egiazko kontsulta adostea Kataluniaren etorkizuna erabakitzeko, edo Espainiako Gobernuarekin independentzia negoziatzea. ■

ASTE HONETAKO

zozketak

Argiako harpidedunentzat



Bizkaiko bertsolari txapelketa

Final aurrekoa

Lagun batentzat bi sarrera

Abenduak 7, igandea 17:30ean
Amorebietako IV. frontoia (Zelaieta zentroa)
Amorebieta (BIZKAIA)

www.bertsosarrerak.eu

1

Ekainberri

3 lagunentzako bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2

Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3

Kaotiko E.H. CALLING

5 CD opari

www.baga-biga.com

4

Okatxu

komikia opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2437. Argia)

ATXASPI HOTELA
- Aitzol Goikoetxea Goldarazena (Hondarribia)

EKAINBERRI
- Josu Diaz De Otalora Serna (Usurbil)
- Ramon Andrinua Lazkano (Bilbo)
- Olatz Usabiaga Errazkin (Donostia)

ILLIMANI liburua
- Josu Belar Unamuno (Arrasate)

SAN TELMO MUSEOA
- Elixabete Perez Gaztelu (Oiartzun)
- Antton Idiakez Korta (Ezkio-Itsaso)
- Jone Santamaria Azpiri (Donostia)

IRUÑEKO PLANETARIOA
- Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)
- Andoaingo Udala Euskara Zerbitzua (Andoain)
- Mari Eli Ituarte Zarragoikoetxea (Markina-Xemein)

* Bisitaldietarako epea: **Bi hilabete**

gunea

argia

PARTE HARTZEKO
Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30
Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

Noranahi goazela. Nonahi gaudela. Gure jendearekin. Gure iritzia adierazi nahi dugunean, geure erara. Euskara gure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa dugu. Lagunen artean, gure giroan, **gure artean euskaraz.**

BFA
DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia